

# Irisgarriago

**Martzelino Zelaia kaleko irisgarritasun lanak**  
urtarrila amaieran hasiko dira



# Oñati Ekintza Komunitarioa

[www.oñatiekintzakomunitarioa.eus](http://www.oñatiekintzakomunitarioa.eus)

Herriko eragileen mapa plazaratu du Udalak. Elkarrekintza sustatu eta ekintza komunitarioa indartzera begirako plataforma digitala da.

**HERRIGINTZA** indartzeko ahaleginean, Oñatiko ehun soziala osatzen duten herriko talde, elkarte, kolektibo eta eragileen topaleku izan eta beraien arteko elkarrekintza sustatzea helburu duen egitasmoa abiatu zuen Udalak 2020an, Partaidetza eta Garapen Komunitarioa departamentuaren ekimenez.

Gauza jakina da, Oñati herri oso bizia dela eta makina bat elkarte, kolektibo eta eragilek dihardutela herrigintzan, arlo ezberdinetan: maila sozialean, naturaren zaintzan, kulturen, kirolean, talde feministak, GKE-ak, erretiratuak, gazteak... Izugarritzko aberastasuna dago hor, eta berebiziko balioa du eragile horiek guztiek herriari egiten dioten ekarpena.

Baina ekarpen hori are handiagoa izan liteke, herriko eragileek elkar hobeto ezagutuko balute, elkarrekin elikatuko balira eta elkarren arteko sinergiak aprobetxatzeko bideak jarriko balira. Eta horixe da, hain zuzen ere, Udalaren nahia eta helburua; alegia, Oñatiko ehun soziala osatzen duten elkarte eta kolektiboak ahalduntzea, saretzea eta ekintza komunitarioko estrategia partekatu bat lantzea, Oñatik dituen behar eta erronkei klabe komunitarioan erantzuteko, Udalarekin elkarlanean.

Eta horixe da Udalak sortu duen 'OÑATI EKINTZA KOMUNITARIOA' plataforma digital berriaren helburua ere. Bi urte daramatza Udalak herriko 'Ekintza komunitarioaren

ekosistema' ideari forma ematen. 2021eko udaberrian herriko hainbat elkarte eta talderekin bildu zen, kontraste bila. Ondoren, 'AULKIAK' izeneko topaketak antolatu zituen, eragileak batu eta herriko gizarte-sarearen egoerari buruzko hausnarketa egiteko, eta orain urrats berri bat eman eta plataforma digitala sortu du.

## PLATAFORMA DIGITALA

[www.oñatiekintzakomunitarioa.eus](http://www.oñatiekintzakomunitarioa.eus) plataforma digitala Oñatiko esparru, eragile eta ekimenak ikusarazteko, hausnartzeko eta elkarrekin saretzeko tresna kolektibo eta kolaboratiboa da.

'Ekosistema' ataleko mapan, ekintza komunitarioaren arloan Oñatin dauden ekimen eta elkarte edo eragileei buruzko informazioa aurkituko dugu, espazialki kokatuta. Bilatzaile bat ere badago, eragileak sektoreka, gaika, auzoka edo eskaintzen duten zerbitzuaren arabera bilatzeko, eta horrek aukera emango du, besteak beste, eragileak espazialki nola banatzen diren ikusteko, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko, elkarlanerako aukerak ikusarazteko eta analisiak egiteko.

Dagoeneko, 100dik gora elkarte eta eragileri buruzko informazioa eskaintzen du mapak. Garrantzitsua da talde edo elkarte bakoitzak bere burua mapea dezala, baina laguntza behar izanez gero, [partaidetza@onati.eus](mailto:partaidetza@onati.eus) helbidera idatzi.

Anik Zubizarreta  
Udaleko Partaidetza eta  
Garapen Komunitarioa  
batzordeko burua



## Ekintza komunitarioarako ariketa kolektiboa

Gu geure aldetik baino, batera gauzak hobeak izan daitezkeela uste dugu. Eta baita hala nahi ere. Hala, horrelako egitasmoek politika publikoa ulertzeko dugun era honetan aurrera egiteko balio dute; alegia, udal jardunean logika komunitarioko politika publikorako estrategia bat garatu eta aurrera eramateko. Eta horrek esan nahi du ez soilik hausnartzea. "Ekintza komunitarioak" esaten duen bezala, ekintza esan nahi du, egitea. Horretarako, baina, ezagutu egin behar dugu herria, nor garen, zeintzuk diren, zertan ari diren eta garen. Dagoenetik abiatu behar gara.

Gure herrian jende asko dago gauza asko egiten. Dabilena eta ibili dena herria egiten, gauzak aldatzen, gauza berriak sortzen... Eta horrelako proiektu batek balio du horretaz guztiaz jabetzeko, ikusarazteko eta horri aitortza egiteko ere. Hor daude, hor gaude, badira eta bagara.

Mapak laguntzen du ezagutarazten. Aulkiak bezalako saioek, bestalde, elkar topatzeko balio dute, herrian daudela jakin bai, baina harremanetan egon ez diren, edo ez garen, horiekin espazio bat konpartitzeko; ideia, behar, erronka eta abar partekatzeko. Eragileek elkar ezagutzeko eta baita udalak ere, bertatik bertara, beraiek ezagutu eta elkarrekin pentsatzeko.

Aurrera begirako bidea da hau, ez da honetan soilik geratuko. Etorriko dira ekimen gehiago.

# Aulkiak-2

► Herriko elkarte, kolektibo eta eragileei zuzendutako saioak antolatu ditu Udalak

► Arloka bilduko dira eragileak, eta elkarrekin dituzten harremanak eta elkarlanerako aukerak jorratuko dira

**Urtarrilaren 17, 18, 24 eta 25ean** herriko elkarte, kolektiboa eta eragileei zuzendutako AULKIAK-2 saioak egingo dira, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa sailak antolatuta.

2021eko azaroan egin zen aurreneko AULKIAK topaketa. Herriko talde eta eragileak bildu, elkar ezagutu eta Oñatiko elkarte- eta gizarte-sarearen egoerari buruzko gogoeta egiteko baliatu zen topaketa hura.

Orain egingo diren AULKIAK-2 saioetan urrats bat haratago joatea da asmoa. Herriko talde eta eragileek elkarren artean duten lotura edo harremana aztertu eta horrek herrian nola eragiten duen aztertuko da.

Baina diagnostikoa egitera mugatu barik, elkarlana sustatzeko dauden gabeziak, indarguneak eta aukerak ere jarriko dira mahai gainean, eta elkarrekintza hori areagotzeko proposamenak egiteko aukera egongo da.

Euskaldun Barria gelan (Bidebarrieta 18-behea) izango dira saioak, 18:00etan, eta eragileak sektoreka edo arloka batuko dira, jarraian datorren egutegiaren arabera. Informazioa eta izen-ematea: **partaidetza@onati.eus**.

### EGITARAUA

#### • URTARRILAK 17

ERAGILE SOZIALAK (I): gizarte-mugimenduak, mugimendu feminista, auzo eta bizilagunen parte-hartzea, jai-batzordeak, elikadura/kontsumoa

#### • URTARRILAK 18

ERAGILE SOZIALAK (II): laguntza/gizarte-ekintza, bizikidetzatza/migrazioa, erlijioa/espiritualtasuna, osasuna/ongizatea, dibertsitate funtzionala, garapenerako lankidetzatza, merkataritza

#### • URTARRILAK 24

KULTUR ETA HEZKUNTZA ARLOKO ERAGILEAK: kultura/arte/ondarea, euskara eta hezkuntza/prestakuntza/gurasoak

#### • URTARRILAK 25

KIROL ETA INGURUMEN ARLOKO ERAGILEAK: kirola, ekologia/ingurumena, zientzia, nekazaritza/abeltza/abeltzaintza/basoen kudeaketa

### 'AULKIAK' BIDEOA

2021eko udazkenean burutu ziren AULKIAK topaketei buruzko laburpen bideoa ikus daiteke ondorengo QR kodea eskaneatuta



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

# geuk

zentzuz · gogoz · ekinez

## Euskal Herriaren historia ezagutzeko hitzaldi zikloa eta erakusketa antolatu dute Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek

'Bere historia ezagutzen ez duen herria ezingo da bere etorkizunaren jabe izan' esan ohi da, eta horixe ekiditea da, hain zuzen, Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek urtero antolatzen dituzten GEUK jardunaldien arrazoi eta helburua.

Jardunaldien laugarren edizioa izango da aurtengoa, eta, honezkero, gure historiako mugarri nagusienak berrikusi ditugu, Nabarraldeko kideek azaldu digutenez. "Badakigu jakin, estatu gabeko nazioa baino, estatu gabetutako nazioa garela. Gure borondatearen kontra, gure legeen kontra, eta bortxaz kendu digutela independentzia. Bortxaz, bai, gure arbasoek ez baitzuten inolaz ere onartu frantses zein espainiar izaterik. Defentsa eta erresistentzia ekintza ugari egin zuten. Ezagunena 1522ko Amaiurkoa dugu. Nola 100 nafar pasatxok astebetez eutsi zieten 5.000tik gora espainiarri. Erresistentziaren ikur bihurtu zaigu Amaiur, eta 500 urte pasa berri diren honetan, Iñaki Sagredok bertako defentsa kontatuko digu, aurretik egungo Gipuzkoako lurretan emandakoak ahaztu gabe, Atxorrotz tartean".

Beste erresistentzia esanguratsu bat Gasteizen eman zen,



1200ean. Bederatzi hilabetez eutsi zioten orduan gasteiztarrek gaztelarren setioari. Martin Ttipia zen orduko nafar tenentea, eta bere izena daraman elkartek, Nabarralderekin batera, komiki bat atera berri du gertakari haren harira. Aritz Ibarra eta Iñigo Larramendi egileek kontatuko dizkigute nondik-norakoak. "Gogoratu, orduan banatu zela bitan Nafarroa, egungo 'vasco' eta 'navarro' komunitate bereiziak ahalbidetuz", diote

Nabarraldeko kideek.

Bistan da gure arbasoek asko sufritu dutela. Eta gure arbasoen ezpainetan entzuten zen hizkerak, euskarak, zein bilakaera izan du konkistatik konkistara? Euskara baturik, izan al zen? Zatiketa politikoak banatu al zuen euskara ere? Gai honi helduko dio Asiskok bere *Euskaldunak, estatu(tu)ak ba(na)tuak* hitzaldian.

Herritar guztiei zuzendutako hitzaldi hauez gain, Nabarraldeko kideek DBH4ko ikasleei zuzendutako bisita gidatuak ere egingo dituzte kultur etxean egongo den *Habitat* erakusketan, "ezkutatu diguten historiaren kontakizuna ezagutzeko aukera izan dezaten". ■

» Amaiurren eta, aurretik, Gipuzkoako lurretan eman ziren erresistentzia eta defentsa ekintzen berri emango du Iñaki Sagredok

» Gaztelako gudarosteak Gasteiz nafar hiribilduari ezarritako setioaren (1199-1200) ingurukoak ezagutuko ditugu

» Gure arbasoen hizkerak, euskarak, konkistatik konkistara izan zuen bilakaeraz hitz egingo du Asisko Urmenetak



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



## EGITARAUA

Kultur etxeko zine aretoan eta erakusketa gelan

### ► URTARRILAK 18 (19:00)

#### HITZALDIA: 'Nafar estatua defendatzen, Gipuzkoatik Amaiurrera' IÑAKI SAGREDO



Nafar erresumaren bilakaera azalduko da, XIII. gizalditik XVI.era. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako lurraldeen galera eta Amaiurko gazteluaren defentsari (1522) buruzkoak jorratuko dira, nola eutsi zioten 100 pasatxo nafarrek, 5.000tik gora soldaduz osatutako gaztelar gudarosteari. Gipuzkoan zeuden gazteluen eta, bereziki, Atxorrotz-eko (Eskoriatza) gazteluan egindako indusketen, eta bertan aurkitutako eta konkistatua izan zela egiaztatzen duten armei buruzko azalpenak emango ditu. [Zine aretoan.](#)

### ► URTARRILAK 24 (19:00)

#### HITZALDIA: 'Euskaldunak, estatu(tu)ak ba(na)tuak' ASISKO URMENETA



Intelligentsia arranguratsen du euskararen geroak: proiektzioak egiten ditu 2030 eta 2040ra, modernotasunarekin lotu beharraz ohartarazten digu, kanpaina asertiboak jaurtiki... Baina gure mendekotasun nazionalaren sis-mografoa den hizkuntza-pultsua galtzen ari da egunik egun, eskualdez es-kualde. Ibilaldi historikoa Euskararen barrenean, estandarizazio-proiektuen bitartez, Leizarragarengandik Arantzazura... eta gerora ere. [Zine aretoan.](#)

### ► URTARRILAK 25 (19:00)

#### HITZALDIA: 'Gasteiz 1200' komikiaren aurkezpena ARITZ IBARRA ETA IÑIGO LARRAMENDI



Gaztelako Erresumako gudarosteak Gasteiz nafar hiribilduari ezarritako setioa, 1199 eta 1200 urteen artean, eta bere testuingurua. Nafarroako Erresumaren mendebaldea konkistatzea zen kanpainaren helburua, eta bertako gotorleku nagusia zen Gasteiz. Gasteiztarrek suharki defendatu zuten hiria zortzi edo bederatzita hilabetez. Martin Ttipia zen orduko nafar tenentea, eta bere izena daraman elkarteak argitaratu duen komikia aurkeztuko dute. [Zine aretoan.](#)

## ERAKUSKETA

URTARRILAK 16-30

### HABITAT, ezkutatu diguten historia



Habitat jakin batean gizakiak jokatu duen historia kontatzen da, ekologian ere erabiltzen den habitat kontzeptuarekin batera, gizakiak sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertuz, XIX. mendera arte.

#### BISITA GIDATUAK

Urtarrilaren 16an eta 30ean 'Habitat' erakusketa hobeto ulertzeko bisita gidatuak egingo dira Beñi Agirreren eskutik, kultur etxeko erakusketa aretoan, 18:30etan.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# Agintaldiko azken aurrekontuak onartu ditu Udalak

- ▶ **20,9 milioi**ko aurrekontua izango du Udalak 2023an
- ▶ **Aho batez** onartu ditu aurrekontuak udalbatzak



2023ko udal aurrekontuak onartu ziren osoko bilkurako irudia


Agintaldiko azkenak izango diren aurrekontuak onartu zituen udalbatzak abenduaren 15eko osoko bilkuran. Aho batez, EH Bildu eta EAJren aldeko botoz onartu ziren aurrekontuak eta, horrenbestez, udalak 20.945.070 euro izango ditu (2022an baino %11,2 gehiago) 2023ko gastu, egitasmo eta erronkei aurre egiteko.

Sarrerak eta gastuak parean dituen aurrekontua da, eta azpimarratzekoa da 1,9 milioi euroko aurrezki arrunt positiboa aurreikusten dela.

Diru sarrerei dagokienez, Foru Fondoaren igoera (598m€), Ur Jauziak enpresaren dibidendoa (588m€), Natur Eskolako obren finantziatorako Europako Next Generation funtsetik jasotako behin behineko dirulaguntza (532m€), eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gainera zergan emango den igoera (350m€) dira aurrekontuaren igoeraren arrazoi nagusiak.

Gastuei dagokienez, KPIaren igoera orokorrak eta energia kostuen garestitzeak eraginda, besteak beste, %9,8ko igoera aurreikusten da ondasun

## ▶ AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA



eta zerbitzuen erosketak kapituluan. Pertsonal gastuak %8,3 igotzen dira eta transferentzia arruntak %14,6, batzuk aipatzearen. Gainera, herriko talde eta eragileei zuzendutako dirulaguntzetan %10eko igoera orokorra aplikatzea erabaki du Udalak.

Inbertsioetara 2,9 milioi euro bideratzea aurreikusten da aurrekontuetan eta, horretarako, 475m€ pasatxoko mailegu berria ere aurreikusi da, aurrekontua orekatzeko, baina 2022ko likidazioaren eta inbertsioen gauzatze mailaren arabera, litekeena da beharrik ez izatea.

► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

|                                                                                                      |                   |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| <b>I. ZUZENEKO ZERGAK</b><br>(kontribuzioa, ibilgailuak, gainbalioa, jarduera ekonomikoak...)        | 4.362.266         |
| <b>II. ZEHARKAKO ZERGAK</b><br>(obra baimenak...)                                                    | 600.000           |
| <b>III. TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK</b><br>(zaborra, kiroldegia, etxez etxeko laguntza...)        | 2.925.717         |
| <b>IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b><br>(Foru funtsa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)              | 10.306.557        |
| <b>V. ONDARE-SARRERAK</b><br>(Oñargi, Ur Jauziak)                                                    | 1.555.770         |
| <b>VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b><br>(Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...) | 691.410           |
| <b>VIII. FINANTZA AKTIBOAK</b><br>(kapital itzulketak, interesak...)                                 | 28.000            |
| <b>IX. FINANTZA PASIBOAK</b> (mailegua)                                                              | 475.348           |
| <b>GUZTIRA</b>                                                                                       | <b>20.945.070</b> |

► GASTUAK KAPITULUKA

|                                                                                                                                                      |                   |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| <b>I. PERTSONAL GASTUAK</b>                                                                                                                          | 6.767.517         |
| <b>II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK</b><br>(konponketak, argindarra, garbiketa, bulego materiala, etxez etxeko laguntza zerbitzua, lorezantza...) | 6.920.683         |
| <b>III. FINANTZA GASTUAK</b><br>(maileguen interesak)                                                                                                | 271.385           |
| <b>IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b><br>(Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, hirugarren mundua...)                                             | 3.897.378         |
| <b>V. KREDITU GLOBALA</b>                                                                                                                            | 0                 |
| <b>VI. INBERTSIO ERREALAK</b>                                                                                                                        | 2.944.413         |
| <b>VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b><br>(Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)                                                         | 107.851           |
| <b>VIII. FINANTZA AKTIBOAK</b>                                                                                                                       | 28.000            |
| <b>IX. FINANTZA PASIBOAK</b> ( amortizazioa)                                                                                                         | 7.840             |
| <b>GUZTIRA</b>                                                                                                                                       | <b>20.945.070</b> |

► ZORPETZE MAILA

Udalaren zor bizia 8,7 milioi eurokoa da 2023ko urte hasieran, 11 urtetan amortizatu beharrekoa. Gogoratu, 2019an 11 milioi euroko mailegua eskatu behar izan zuela Udalak (8 milioi entitate finantzario bati, eta 3 milioi Ur Jauziak enpresari), kiroldegia eraberritzeko lanek eta beste inbertsio batzuek eragindako gastuei aurre egin ahal izateko.

## Egitasmo nagusiak DEPARTAMENTUKA

Hona hemen 2023ko Udal Aurrekontuak jasotzen dituen egitasmo nagusiak departamentuka edo arloz arlo.

### BERDINTASUNA

%14,7ko igoera du berdintasunaren arloak. Urteroko ekimenentzako eta berdintasun planean jasotako ekintzak aurrera eramateko beharrezko diren aurrekontuez gain, jarraipena emango zaio, esaterako, udal gobernuak estrategikotzat duen **Emakumeen Etxearen** proiektuari. Horretan geratu barik, urrats berriak ematen jarraituko da berdintasunean, adibidez, **zaintza beharren eta baliabideen** diagnostikoa eginez, eta Udalaren **Berdintasun Plana** landuz.

### KULTURA

**Emakume sortzaileen lana** babesten jarraituko du Udalak. Gainera, **gaztetxoek buruhandi eta erraldoien konpartsa** aztertu eta sortzeko urratsak emango dira. **Etnografia** proiektuari segida emango zaio, eta herriko **kultur sormena eta mugimendua** babesten jarraitzeko partidak ere jasota daude. Azken horri dagokionez, 94.500 eurora igotzen da diru-atala, 2022an baino %10 gehiago.

### EUSKARA

Euskararen alorrean, hainbaten artean, euskararen presentzia bermatzeko eta indartzeko, **Ingo Xonau** ekimenaren jarraipen eta sustapenerako, **hitanoaren** erabiltzenerako jardunaldietarako, eta **Gaztetxoek artean euskararen erabilera** sustatzeko partidak barnebiltzen ditu aurrekontuak.

### PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA

Arlo honetan orain arteko bidean segitzeko asmoarekin jarraitzen du gobernu taldeak, diskurtso hutsera mugatu barik, **herritarrek ardatz dituen** gobernantzarako ereduan sakonduz. Ildo horretan, **ekintza komunitarioan** sakonduko du Udalak, **komunitatea** indartzeko eta **elkarlanerako bide berriak** bultzatzeko proiektu edo prozesuak posible egiteko. Bestetik, 250.000 euroko partida egongo da **partaidetzazko aurrekontuetan** irteerako proiektuak gauzatzeko.

### KIROLA

Kirol talde eta eragileei zuzendutako diru laguntzak indartzen dira 2023ko aurrekontuetan. Batetik, **Aloña-Mendiri** bideratutako dirulaguntza **%12,5** handitzen da; eta **Eskola Kirola** elkartearentzako laguntza, **26m€tik, 39m€ra** igotzen da. Bestetik, Zubikoa Kiroldegiko **kantxa urdineko teilatua**

(hurrengo orrira)

konpontzeko proiekturako partida berria dago; eta **100.000** euroko beste partida berri bat, **Pump track** zirkuitu bat egiteko.

## HEZKUNTZA

Hezkuntza arloan orain arteko zerbitzu guztiak mantentzeko eta zerbitzu berriak sortzeko apustua egiten du Udalak, Oñati **herri hezitzaile** bezala indartzeko helburuarekin. Besteak beste, **290.000** euroko partida dago Sancti Spiritus unibertsitatean **formazio eta ikasketa gelak** egokitzeko. Horrez gain, ikastetxeekin elkarlaneko proiektuak lantzen jarraitzeko edota metodologia berritzaileetan oinarrituriko proiektu hezitzaileak abiarazteko diru laguntzen igoera, eta helduei zuzendutako **esperientzia gelan** sakontzen jarraitzeko partidak ere jasotzen ditu aurrekontuak.

## SOZIOEKONOMIA

Arlo honetan mantendu egiten da aurrekontua, oro har. Hainbaten artean, nabarmentzekoak dira **enpresa berrien sustapeneko** partidaren igoera, **Elkarzabal** integratzailearen elkartearentzat 20.000 euroko dirulaguntza berria sortzen da, eta **turismo bulegoa** Sancti Spiritus unibertsitatara lekualdatzeko proiektua idazteko diru atala ere jasotzen da.

## LURRALDE ANTOLAMENDUA

Hirigintza eta Zerbitzuen arloko aurrekontuak **%12,6ko** igoera du, 2022koarekin alderatuz. **Irigarritasun** lanetarako **300.000** euro eta hirigintza eta irigarritasun proiektuak lantzeko 50.000 euro bideratuko dira; **HAPO**aren garapenerako **133.000** euro; **Kasko historikoa** eraberritzeko plan berezia hasteko 20.000 euro; **Kale Zaharra, Aita Madina eta Otadui Zuhaitzia** kaleetako irigarritasun planerako 15.000 euro; eta **Olakuako putzurako** exekuzio proiektua idazteko 16.000 euroko partida nabarmentzen dira. **Aparkamentu disuasorio** bat sortzeko leku azterketa egiteko 14.000 euro.

**Olakua-Olapotoko irigarritasun lanekin jarraitzeko 300.000 euroko partida dago**

**Energia Planean jasotako inbertsioetara 250.000 euro bideratuko dira**

**Kale Zaharra, Aita Madina eta Otadui zuhaitziko irigarritasun plana idatziko da**

**Azoka gunea berritzeko proiektua eta Olakuako putzurako exekuzio proiektuak egingo dira**

**Emakumeen Etxea proiektuari jarraipena emango zaio**

**Alzheimerra dutenentzako programa bat sortuko da eta eguneko zentro arina abian jarriko da**

**Sancti Spiritus unibertsitatean formazioarako eta ikasteko gelak egokituko dira**

**Pump track zirkuitoa egokitzeko 100.000 € bideratuko dira**

Auzoak, Nekazaritza, Landa Garapena eta Ingurumen arloan, berriz, **auzoetako inbertsioetan** eta auzoei ematen zaien **dirulaguntzetan** %10eko igoera aplikatuko da. Horrez gain, **landalur partzelen digitalizazioarako** 80.000 euro bideratuko dira, eta **zolatatu gabeko gunek zolaratzeko** laguntzetarako 30.000 euro. **Azoka gunea** eraberritzeko proiektura 17.000 euro bideratuko dira. **Herri onurako mendietako, artzai txabola eta larreetako** inbertsio eta hobekuntza dirulaguntzetarako 200.000 euroko partida bereizi da. **Basogintzarako** 55.000 euro.

Bestalde, **250.000** euroko partida bat sortu da **energia jasangarritasunari** loturiko inbertsioetarako.

## HAURRAK ETA GAZTERIA

Haurrak eta Gazteria arloan ere egitasmo eta zerbitzu berriak abiaraziko dira, eta, beraz, hazi egingo da datorren urteari begirako aurrekontua, diru partida berriak sortuz, eta zenbait indartuz. **Adin txikikoentzako inklusio zerbitzua** eta **Maratz gazte langabetuentzako orientazio zerbitzua** dira horren adibide. Bestetik, 2022an eginiko jolasguneen diagnostikoa oinarri, **100.000** euroko partida sortu da diagnostiko txostenean proposaturiko zenbait esku-hartze gauzatzeko.

## ONGIZATEA

Ongizatearen arloan pertsonen eskubideak, bizi-kalitatea eta ongizatearen onurarako izango diren hainbat esku-hartze jasotzen ditu aurrekontuak. Guztira, **209.000** euroko igoera (%11 ingurukoa). Tartean, **etxez etxeko laguntza zerbitzurako** partida 900.000 eurora igoen da. **Alzheimerra** dutenentzako programa sortzeko eta **eguneko zentro arina** abiarazteko partidak ere jaso dira. **Gizarte Larrialdietarako** eta **gizarte bazterketa arriskuko** egoeretarako diru-laguntzetan %10eko igoera aplikatuko da. ■



# ALDERDIEN BALORAZIOAK

Udal gobernu taldea pozik azaldu zen onartutako aurrekontuekin. "Ia 21 milioi izango ditugu herritarren beharretara bideratzeko. Baliagarri izango dira zerbitzu publikoak indartzeko, zaurgarrienen alde egiteko, partaidetzazko aurrekontuetan herritarrek aukeratutako egitasmoak martxan jartzeko, bestelako proiektu berriak abiarazteko...", adierazi zuen Izaro Elorza alkatea.

Oposizioak emandako erantzunarekin ere pozik daudela adierazi zuen Xabier Igartuak, Ogasuna batzordeko buruak. "Garrantzitsua iruditzen zaigu, oposizioak gure proposamena aztertu ondoren, gobernu taldeak aurkezturiko puntu bakar bat ere kentzeko eskaerarik ez egitea. Proposamen landua aurkeztu dugunaren seinale, kudeaketa egokiaren adierazgarri".

"Azken hiru urteetako irizpide berdinarekin osatu dugu 2023ko aurrekontua", gaineratu zuen Igartuak; "herritarren beharrei erantzuteko zerbitzu publikoak bermatu eta herriko talde eta eragileei zuzendutako dirulaguntzak indartu ditugu, inbertsio maila mantenduz eta EH Bilduren herri programan jasotako konpromisoak gauzatuz".

EAJk egindako proposamenak aztertu ondoren, horietako hiru 2023ko aurrekontuan txertatzea onzat eman dutela azaldu zuen Ogasuneko batzordeburuak: "Musika Eskolako hitzarmena aintzat hartuta, 2023an egin daitezkeen hobekuntza lanetan Udalari dagokion zatia ordaintzeko 60.000€; genero indarkeriaren prebentzioa gazteekin sakontzeko 15.000€ gehiago; eta merkataritza biziberritzeko planean, tokiko merkataritza sustatzeko 15.000€ gehiago. Guztira, 90.000€".

Laburbilduz, oñatiarren egunerokoa hobetu eta etorkizuneko erronkei behar moduan erantzuteko aurrekontuak direla adierazi zuen gobernu taldeak. "Aurrekontu sozialak dira, oro har, zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak indartzea dakartenak, inbertsio mailari eutsiz".



Izaro Elorza  
EH BILDU

*"Oposizioak gobernu taldeak aurkezturiko puntu bakar bat ere kentzeko eskatu ez izana garrantzitsua iruditzen zaigu; proposamen landua aurkeztu dugunaren seinale, kudeaketa egokiaren adierazgarri"*



Ainhoa Galdos  
EAJ

*"EAJk urte askotan egindako hainbat proposamen jasotzen ditu aurrekontuak. Oñatiko benetako beharrei erantzuten dieten proposamenak dira, eta EAJren oposizio lanari esker erantzuna jasoko dute"*

## OPOSIZIOAREN IRAKURKETA

EAJren udal taldeak ere aldeko botoa eman zion gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proposamenari, "gure taldeak urtetan zehar egindako hainbat proposamen jaso dituelako", arrazoitu zuen Ainhoa Galdos bozeramaleak. "Oñatiko benetako beharrei erantzuten dieten proposamenak dira, eta EAJk egindako oposizio lanari esker, erantzuna jasoko dute, azkenean".

Horietako batzuk azpimarratu zituzten jeltzaleek. "Irisgarritasun lanetarako 300.000 euro (kontu-saila handitzea), eta Arantzazu kaleko eremuko proiektua Berezao poligonoraino egiteko konpromisoa; landa-auzoetako argiteria hobetzeko plan orokor bat egitea, landa-lurzoruak digitalizatzeko diru partida (aholkularitza-zerbitzua kontratatzea landa-auzoetako mugak digitalizatzeko, faseka); Klimaren eta Energia Iraunkorraren Ekintza Plana egitea (klima aldakearen aurka borrokatzeko), Torreazuko bidegorria eraikitzea, Oñatiko auzoetan inbertsioak egiteko kontu saila handitzea...".

Horiez gain, udal gobenuarekin adostu eta aurrekontuetan jaso diren beste hiru proposamenen berri ere eman zuen EAJk. "Tokiko merkataritzari balioa emateko jarduerak eta herritarrek kontzientziatzeko kanpaina egiteko diru-lerro bat (15.000€) bideratzea, herritarrei eta, bereziki, gazteei zuzenduta; Musika Eskola berria eraikitzen den bitartean konponketak egiteko diru-partida bat sortzea (60.000€), eta gazteen artean genero-berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko mekanismo zehatzak abian jartzea (programak, ekintzak, tailerrak, ziberjazarpen tailerrak... 15.000€).

Gobernu taldearen jardunaren jarraipen zorrotza egiten jarraituko dutela adierazi zuten jeltzaleek, "orain arte egin dugun bezala, proposamen horiek egiten eta gauzatzen direla egiaztatzeko eta, modu horretan, EH Bilduren gobernu taldeak oñatiarrei emandako hitza betetzen duela bermatzeko. ■

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**



**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40



## Martzelino Zelaia kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanak urtarila amaieran hasiko dira

- » Plataforma bakarra egokituko da kale osoan. Aparkalekuak ezabatu eta zama lanetarako guneak egokituko dira. » Argiteria eta ur-hornidura nahiz saneamendu sareak ere berrituko dira.
- » Lanak burutzeko 25 asteko epea aurreikusi da

Azken orduko atzerapenik ez bada, urtarila amaieran hasiko dira Martzelino Zelaia kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanak. Udalaren enkar-guz, *A2B Arquitectos* enpresak idatzitako proiektuaren arabera, plataforma bakarra eratuko da kale osoan, oinezkoen eta ibilgailuen guneak kota berean jarrita. Egun Martzelino Zelaia kalean dauden aparkalekuak kendu egingo dira eta zama lanetarako bi gune egokituko dira (marra horiz daude adierazita

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ezkerreko planoan).

Horrenbestez, funtsean oinezkoentzako kalea izango da Martzelino Zelaia, eta ibilgailuen zirkulazioa mugatuta egongo da garajeak dituzten bizilagunentzat eta zamalanetarako izan ezik.

Kaleko zoladura osoa berrituko da, eta zenbait lekutan zoladura bereizgarria ipiniko da, oinezkoen orientazioa erraztu eta kendu ezin daitezkeen oztipoen presentzia ohartarazteko. Kale Barria- 54 zenbakiko arkupedun atarira igotzeko arrapatatxo ere egokituko da.

#### ARGITERIA ETA UR SAREAK

Irugarritasun lanekin batera Martzelino Zelaia kaleko ur-hornidura eta ur zikinen saneamendu sarea berritzeko lanak ere egingo dira, Gipuzkoako Urak enpresak idatzitako proiektuaren arabera. Gainera, argindar instalazioak eraberritzeko obra zibila ere egingo da, Oñargik landutako proiektuaren arabera.

Lanak 397.809 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute osotasunean, baina ur sareak hobetzeko lanen kostua (127.868 euro, BEZ barne) Gipuzkoako Urak enpresak hartuko du bere gain, eta argindar instalazioari dagozkion lanena (21.047 euro, BEZ barne) Oñargi S.L.-k.

Martzelino Zelaia kaleko irugarritasuna hobetzeko lanak Morga S.L. enpresak egingo ditu, eta 25 asteko epea aurreikusten da lan guztiak burutzeko. ■

## 10 aparkaleku berri egokituko ditu Udalak Errekalde 29-31-33 zenbakien atzealdean

» Gune horietako argiteria ere berrituko da » Lanak urtarilaren amaieran hasiko dira eta 8 astez luzatuko dira



Planoan ikus daiteke non eta zenbat aparkaleku egokituko diren. Irudian 33 zenbakiaren atzealdea.

Mugikortasun jasangarria eta irugarritasuna nahiz oinezkoen segurtasuna sustatu eta bermatzeko asmoz, Errekalde auzoan Udalak akenaldian egin dituen espazioen berrantolaketa autoentzako aparkalekuak murriztea eragin du. Gogoratu, adibidez, Urgain eskolaren atarian zegoen autoentzako aparkalekuaren ordez, bizikleta eta patineteentzako aparkalekuak egokitu zirela.

Beraz, auzotarren beharrak ikusita, autoentzako 10 aparkaleku berri egokitzea erabaki du Udalak, Errekaldeko 29-31-33 atarien atzealdeko orubeetan, egun dauden berdeguneak kenduta. Aparkaleku gehienak (9), 31-33 zenbakien atzealdean egokituko dira, planoak adierazten duen moduan, eta bakarra 29 zenbakiaren ostean.

Aparkalekuak egokitzeaz gain, gune horietako argiteria ere berrituko da.

Construcciones Ugartek egingo ditu lanak 70.114 €-ko (BEZ barne) aurrekontuarekin eta 8 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

**Maite Aiastui Kortabarria**  
Irakaslea

[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)

# Atletismo pistaren eta futbol zelaiaren inguruan egindako azterlanen emaitzak aurkeztu ditu udal gobernuak



Xabier Igartua (Ogasuna), Maite Anton (Kirolak) eta Izaro Elorza alkatea, azterlanen emaitzak aurkezteko ekitaldian

Urrutxun eraiki asmo duen atletismo pistaren inguruko exekuzio proiektua eta etorkizuneko futbol zelai berriarentzako kokaleku posibleen inguruan egindako azterlanen emaitzak aurkeztu ditu udal gobernuak.

Biak ala biak munta handiko aurrekontuak dituzten kirol azpiegiturak dira eta, beraz, nekez gauzatu ahal izango dira epe motzean (batez ere futbol zelaia), baina udal gobernuak zenbakiak ipini nahi izan dizkie bi egitasmo horiei, hurrengo urteetara begirako inbertsioak planifikatu ahal izateko.

## ATLETISMO PISTA, FASE EZBERDINETAN

Atletismo pistari dagokionez, Urrutxuko gunean lau kaleko eta 400 metroko tartanezko pista eraikitzea da Udalaren asmoa.

Lau kaleko eraztun horren kanpoaldean, asfaltozko beste kale bat egokituko litzateke, korrika lasaia egin nahi dutenentzat, eta atletismo pistaren barrualdean beste kale bat patinetan ibili ahal izateko.

Gainera, atletismo pistaren barrualdean geratzen den eremu zabalean (9.353m<sup>2</sup>) beste kirol batzuetarako eki-

» Atletismo pista bizpahiru urtetan eta faseka eraikitzen hasteko modua ikusten du Udalak, baina, aurrena, zabortege izandako gunea zigilatzeke lanak amaitu behar dira

» Etorkizuneko futbol zelai berriarentzako kokaleku egokiena Betik-eko gunea dela uste du udal gobernu taldeak

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Azken egutegi  
iragarpena



Kalitatearen  
garantia



Oraineko  
zerbitzua

pamenduak egokitzea aurrekusten du Udalak, baina zehaztu gabe dago oraindik zein kirol izango diren. Aloña Mendirekin eta beste kirol eragileekin batera aztertuko ditu aukera ezberdinak.

Horiez gain, aldagelak, harmailak, aparkalekuak eta ingurua urbanizatzeko beste lan batzuk era jasotzen dira Chocarrok idatzitako exekuzio proiektuan.

Guztira 2.743.525 euroko aurrekontua du proiektuak. Kopuru handia da, jakina, baina hiru fase ezberdinetan gauzatzeko aukera ikusten du Udalak. Aurreneko fasean atletismo pista bera eraikiko litzateke (1.265.263 €-ko aurrekontua), bigarren fasean barrualdeko ekipamenduak egokituko lirateke, eta hirugarrenean kanpoaldeko urbanizazioa.

#### EPEAK

Exekuzio epeei dagokien Udalak ez du zehaztasunik eman, proiektu hau Urrutxun egin beharreko zigilatze lanei lotuta dagoelako. Bere garaian zabortegia izandako eremua zigilatze egin behar da, kutsatutako lurra isolatzeko, eta oraindik bigarren faseko lanak egitea falta da.

Ondoko planoak erakusten duen moduan, goiko aldeko (Garbigune ondoko) eremua zigilatuta dago jada, baina behealdeko eremua (Ulma Handling lantegira bitartekoa) falta da. Bigarren fase honetako lanek 2 milioi inguruko aurrekontua dute eta, une honetan, exekuzio proiektua enkargatua du Udalak. Asmoa da aurrean bertan ekitea zigilatze lanei. Bien bitartean, Jaurilaritzako Ingurumen sailarekin hitz egingo du Udalak, atletismo pistaren eraikuntza bigarren faseko zigilatze lanekin bateratsu egin ote litekeen jakiteko, kontuan hartuz goiko eremua zigilatuta dagoela.

(Hurrengo orrira)



**ATLETISMO PISTA.** Atletismo pistaren exekuzio proiektuak 2,7 milioi euroko aurrekontua du (aldagelak, harmailak eta inguruko urbanizazio lanak barne). Pistaren barrualdean beste kirol batzuetarako (oraindik zehaztu barik) ekipamenduak jartzea aurrekusten da. Udalaren asmoa da proiektua hiru fase ezberdinetan gauzatzeko. Lehenengoan, atletismo pista bera egingo litzateke (4 kaleko tartanezkoa) ia 1,3 milioi aurrekontuarekin.



**ZIGILATZE LANAK.** Lerro hauen gaineko irudian ikus daiteke Urrutxu gunean dagoeneko zigilatuta dagoen eremua (Garbigune ondokoa, atletismo pista hartuko lukeena), eta oraindik zigilatze dagoena (errepidetik Ulma Handling Systems aldera dagoen eremua). Bigarren faseko zigilatze lan hauek 2 milioi euro inguruko aurrekontua dute.

**Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak  
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

Ondoko planoak erakusten duen moduan, Berezaon (Korriuena inguruan) bi futbol zelai, entrenamenduetarako gunea, aldagelak, blegoak eta aparkalekuak eraikitzeko aukera azertu du Ginder ingenieritzak, 33.604m<sup>2</sup>-ko eremuan. **Aurrekontua:** 14, 5 milioi (desjabetzeak eta beste gastu batzuk sartu barik). San Martinekin lotuko lukeen pasarela bat egokitzeko aukera ere azertu zen, baina aurrekontuan sartu gabe dago.

# MAPFRE

Arantzazurako errepidearen gainean egokituko litzatekeen airetiko pasarela baten bi-dez. (Ikusi ezkerreko irudia). Horrek, noski, Azkoagainen egindako eta etorkizunean egin litezkeen inbertsioak amortizatu eta aprobetxatzeko aukera emango luke.

Egin beharreko inbertsioen zenbatekoa ikusita, garbi dago epe luzerako proiektu bati buruz hitze egiten ari garela. "Aurrena, kiroldegia ordaindu eta beste inbertsio batzuei aurre egin beharko zaie, baina, orain behintzat, kokalekua zehaztuta, urratsak ematen has gaitezke, finantzaketa bideragarria den momentuan proiektua gauzatzen hasteko", adierazi du udal gobernua.

Lehenengo urratsa, Hiri Antolamendurako Plan berrian Betik-eko lursailen kalifikazioa aldatzea izango da, kirol ekipamenduetrako gune izendatuz. ■

## KIROLDEGIKO ABONUAK - 2023

Urte berria hastearekin batera KIROL TXARTELA berritzeko unea iritsi da. Horrela bada, abonuari aldaketaren bat egin nahi izanez gero Zubikoa kiroldegian egin daitezke jada. Aldaketak 2023ko **urtarrilaren 15a** baino lehen egin behar dira. Bestalde, abonuen kobraketak urtarilaren 20an egingo dira.

### KONTUAN HARTZEKOAK

KIROL TXARTELAREN abonua egin edo horretan aldaketak egiterakoan, aintzat hartu honako irizpideak:

- Abonuan aldaketak egin ezean, automatikoki dagokizun adin-tarteko abonua kobratuko da.
- Abonua eskuz kiroldegian ordaintzen dutenek urtarilaren 3tik aurrera egin dezakete ordainketa. Data horretatik aurrera, eta abonua ordaindu arte, baja emango zaie.
- 2022an hobia jaso dutenek, eta 2023an ere hobia jaso nahi badute, eskaera egin behar dute udaletxeko HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) zerbitzuan, edota telematikoki Udal web atarian ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)). Hobariak urtarilaren 2tik 20ra bitartean eskatu daitezke. Eskatzen ez dutenei, abonuen kuota osoa kobratuko zaie. Eskaera egiteko inprimakia kiroldegian edo udaletxean (HAZ) daude eskuragarri.

» Kirol txartelean aldaketaren bat egin nahi duten bazkideek urtarilaren 15a baino lehen eskatu behar dute Zubikoa kiroldegian

» 2022an hobia jaso duten abonatuak alta emango zaie 2023ko abonuan, baina hobia jasotzeko eskaera egin behar dute urtarilaren 20a baino lehen



## ESKaintza Berria

Gosari bereziak  
(tostada berritzaileak, fruta-zuku naturalak, kafea, jogurt bereziak, infusioak...)

gourmet dastaketak  
(hanbursesak, momentuan eginiko errazioak...)

...



**LAPIKO GORRI**

Jan-edana mimoz landuz,  
herritarrak zainduz

2023 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

Ultzegin 11 • Tel. 943 50 20 70 • 

# OÑATIKO ESPERIENTZIA GELA

Lehen hiruhilabeteko balorazio oso positiboa egin du **Goienagusik**, eta datozen hilabeteetarako programa aurkeztu du

Udaleko Hezkuntza sailak eta Debagoieneko Goienagusi elkarteak abian jarri duten **Oñatiko Esperientzia Gelak** bere lehen hiruhilekoa osatu du, eta orain arteko balorazioa oso positiboa da. Urrian hasi eta urtea amaitu bitartean bost hitzaldi eta jarduera osagarri bat ('Argazkigintza telefono mugikorrekina') egin dira Oñatin, eta balorazioa oso ona izan da; hizlariak, oro har, maila oso onekoak izan dira, eta parte hartzeari dagokionez, lehenengo saioan ikaragarria izan zen,

eta ondorengoetan oso ona.

Hasi berri dugun urtean ere, maiatza bitartean, hamabostean behin Oñatin hitzaldi bat antolatzen jarraituko du Goienagusik, oñatiar guztientzat irekiak. Ekintza osagarri bat ere antolatuko da gurean, hiruhilean behin. Baina, bestalde, hemendik aurrera Goienagusik Arrasaten eta Bergaran antolatuko dituen hitzaldi eta bestelako ekitaldietan parte hartu nahi duten oñatiarrak Goienagusi bazkide egin beharko dira.



**Joseba Sarrionandia**  
**URTARRILAK 18**



**Garazi Hach Embare**  
**OTSAILAK 1**



**Felix Zubia**  
**OTSAILAK 15**

## Egin zaitez Goienagusiko bazkide

2023 urtera begira Oñatin bazkidegoa sustatzea da Goienagusiren helburue-tako bat.

Onura asko ditu Goienagu-siko bazkide izateak:

- Formazioa, kultura eta aisialdiaz gozatzea, buruz nahiz fisikoki aktibo mantentzeko.
  - Isolamendua baztertu eta harreman sozialen sarea zabaltzea eta komunitatea sortzea eskualde mailan.
- Goienagusiko bazkide izateko nahikoa da 55 urte beteta edukitzea.

Urtarriletik urrira arteko kuota: **56€**.

Informazioa eta izen- ematea: [www.goienagusi.eus](http://www.goienagusi.eus) / [goienagusi@gmail.com](mailto:goienagusi@gmail.com)

## Goi mailako hizlariak

Indartsu hasi zen Oñatiko Esperientzien Gela, Angel Chamorro, Juanjo Alvarez edo Felix Arrieta bezalako hizlariekin, eta maila horri eutsiko dio ondorengo hilabeteetan ere, goi mailako hizlariekin eta gai mamitsuekin.

**Joseba Sarrionandia** (lurreta-Durango, 1958) idazlea izango da urteko lehen gonbidatua. 'Munduari bira eman zion ontzia' liburua eta lehenengo zirkunabigazioa abiapuntutzat hartuta, kolonialismoari eta globalizazioari buruzko gogoetak partekatuko ditu.

Saharar errefuxiatuen kanpalekuetan jaio eta hezi zen **Garazi Hach Embarek** Mendebaldeko Saharako gatazkari buruz hitz egingo du ('Mendebaldeko Sahara: gatazkak jarraitzen du. Zergatik?'). Eta, azkenik, **Felix Zubia** medikua (Zarautz, 1974) etorriko da, minbiziaz berba egitera ('Minbizia. Zer da? Eta nola egin diezaiokegu aurre?')

**AURKEZPEN EKITALDIA.** Urtarrilaren 11n Esperientzia Gelaren bigarren hiruhilabeteko programaren aurkezpene egingo da udaletxeko areto nagusian (10:00), herritar guztiei irekia.



**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),  
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.  
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 · 20560 Oñati · Gipuzkoa · T. 943 783657 / 646 023570  
info@casaruralarregi.es ■ [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es)

# Nerabeak, generoa eta bizikletaren erabilera Oñatin

Oñatiko eskola-mugikortasunean garrantzi handia du bizikletak, batez ere nerabeen artean. Horregatik, **Bagabiltz-Eskolako Bidea** Udaleko hezkuntza sailak eta ikastetxeek elkarlanean sustatutako egitasmoaren baitan, nerabeek ibilgailu honekin dituzten harremana eta mugikortasun-ohiturak aztertu dira genero ikuspegitik. Gainera, Oñatik bizikletaren erabilerarako dituen azpiegiturak baloratu dituzte nerabeek. Artikulu honetan burututako azterketaren emaitza nagusiak azaltzen dira.

Jakina da gaur egun erronka bat dugula gizarte moduan klima-aldaketa eta airearen poluzioa bezalako arazoei aurre egiteko. Gure eguneroko jardura askok kutsatzaileak igortzen dituzte, eta jardura garrantzitsuenetako bat garraioa da.

Bagabiltz Eskolako Bidea egitasmoan ikastetxeekin lotutako mugikortasuna lantzen da, eta Oñatiko haur eta gazteen joan-etorrien ezaugarriak eta mugitzeko ohiturak aztertzen dira. Azterketa horiei esker badakigu azken urteotan autoaren erabilera murriztu egin dela (murrizketa hau oso positiboa da), mugikortasun aktiboak gora egin duela (batez ere oinez ibiltzeak), eta autobusaren erabilera ere handitu egin dela.

2022an bizikletaren inguruan nerabeek dituzten jokaera eta ohiturak aztertu dira, genero ikuspegitik. Azterketa honetarako informazioa lortu nahian Oñatin derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa ikasten duten nerabeei galdetegi bat luzatu zaie. Guztira 520 pertsonak hartu dute parte: 255 neska, 250 mutil eta 15 genero ez-bitarrekoak. Bizikleta zenbat eta zertarako erabiltzen duten, zer motibazio dituzten eta garraiobide honen erabilera areagotzeko edo hobetzeko zer ideia planteatu daitezkeen jakin nahi izan da.

## Nerabeak eta mugikortasuna

Nerabeen %29k egunero erabiltzen dute bizikleta

Ikastetxerako garraiobidea aukeratzerakoan ingurumen-iraunkortasunari dagokionez neska eta mutilen artean alderik ez dagoen arren, ñabardurak daude. Neskak sarriagotan mugitzen dira oinez, eta mutilek oinez ibiltzea bizikletaren erabilerarekin konbinatzen dute. Baina bi kasuetan bizikletaren balorazio orokorra garraiobide moduan oso handia da, 10etik 8 baino gehiago. Era berean, zenbait leku konkretutara joateko oso aproposa delako ustea dute, hala nola, auzotik ikastetxera, kiroldegira edo Azkoagainera joateko. Aldiz, ez da hain estimatua lagunekin buelta bat emateko, batez ere nesken ustez.

% 29k egunero erabiltzen du bizikleta, eta alde handiak daude mutilen eta nesken artean. Hirutik batek oporretan bakarrik erabiltzen du (% 30), neskek batez ere. % 10ek ez du inoiz erabiltzen.



» Guztira DBH eta batxilergoko 520 nerabek parte hartu dute galdetegian: 255 neska, 250 mutil eta 15 genero ez-bitarrekoak

» Galdetutako nerabeen %80erentzat Oñatin edozein lekukatar joan daiteke bizikletaz, eta %61,2k auto-gidariak bizikletekiko errespetu handia edo oso handia dutela sentitzen dute

» Herrian dauden bizikleta-aparkalekuei buruz gogobetetasun handia edo oso handia dute. Auzoetan edo Eltzia bezalako ekipamenduetan aparkaleku gutxi daudela aipatzen dute.

## Bizikletaz ibiltzeko aukerak, testuinguru soziala eta jarrera pertsonalak

Inkestatuen %93,6k adierazi dute bizikleta erabiltzea oso ona edo nahiko ona dela ingurumenerako

Gazte gehienek bizikleta propioa dute (10etik 9k), baina nesken artean ohikoagoa da bizikletarik ez edukitzea. Bizikleta gehienak egokiak dira hirian erabiltzeko (hiri erabilera). Neskak dira mota honetako bizikleta gutxien dutenak. Bestalde, ikasleen % 67k uste du nahiko trebea edo oso trebea dela pedalei eragiten. Nesken ustetan, mutilekin alderatuz ez dira hain trebeak. Erosotasunari dagokionez, mutilei erosoagoa iruditzen zaie bizikleta erabiltzea neskei baino.



Bizikleta erabiltzeko erabakian, gurasoen ohiturek ez dute hainbesteko eraginik, baina bai, ordea, lagunenak. Laguntaldean ohiturek familiakoek baino eragin handiagoa dute.

Neskek eta mutilek modu desberdinean baloratzen dituzte bizikleta erabiltzeak ematen dizkien abantaila pertsonalak; adibidez, sasoi onean mantentzen laguntzen duen ala ez. Komunitatearentzako abantailak, aldiz, antzera baloratzen dituzte. Inkestatuen % 93,6k (neskek mutilek baino gehixeago) adierazi dute bizikleta erabiltzea oso ona edo nahiko ona dela ingurumenerako.

## Bizikleta erabiltzeko baldintzak eta garatu daitezkeen neurriak

Oñatin bizikletaz ibiltzea oso segurua dela diote

Inkestatuen iritziz, oro har, oso segurua (% 85,8) eta erabilgarria (% 86,8) da bizikletaz zirkulatzea Oñatin zehar, sexuen arteko alde handirik ez dago iritzi honetan. Gainera, galdetutako nerabeen % 80rentzat edozein lekutara joan daiteke bizikletaz.



% 61,2k auto-gidariekin bizikletenganako errespetu nahikoa edo oso handia dutela sentitzen du. Ehuneko hori jaitsi egin da nesken artean: % 15,7ren ustetan autoek gutxi edo oso gutxi errespetatzen dituzte bizikleta gidariak (mutilen %10ek uste dute hori).

Erabilgarri dauden bizikleta-aparkalekuei buruz ere galdetu zaie nerabeei. Gazteen %78k gogobetetasun handia edo oso handia dute azpiegitura hauei dagokionez. % 3,8k uste dute ez direla oso egokiak. Balorazio orokorra oso ona izan arren, ekarpen batzuek auzoetako edo Eltzia bezalako ekipamenduetako aparkaleku gutxi daudela (edo ez direla aproposak) aipatzen dute.




Garatu daitezkeen ekintzetan pentsatuz, inkestatuen arabera bizikletaren erabilera gehien areagotu dezaketen alderdi nagusiak hauek dira, ordena honetan: bizikleta lagun-taldeen erabiltzea, motordun trafikotik bereizitako bidegorri gehiago egotea, bizikleta erabiltzeko trebetasun handiagoa lortzea eta hainbeste auto ez egotea.

### BIZIKLETAREN ERABILERA, MAITASUNA


#### INKESTATU GUZTIAK




#### MUTILAK



#### NESKAK



#### EZ BITARRAK



## Oñatiko nekazaritza sektorearen eta gure elikadura sistemaren inguruan egindako ikerketaren emaitzak herritarrekin partekatuko saioa egingo da otsailaren 1ean

Gure elikadura ohiturez, ingurumenaz eta nekazaritzaren etorkizunaz gogoeta egiteko jardunaldien baitan, 2021-2022 urteetan zehar Oñatiko elikadura sistema aztertu eta sistema hau agroekologiaren bidean indartzeko urrats berriak proposatzeko ikerketa burutzen ari den lantaldeak emaitzak partekatuko ditu herritarrekin. Ikerketa lan hau Oñatiko udaleko beka baten baitan burutu da, nekazal kulturaren gainbehera eta ingurumenarekiko ondorioak aztertzeko aukera zabaldu eta ekintza plan bat martxan jartzeko helburuarekin.

Elikaduraren inguruan egunero hartzen ditugun erabakiek eragin zuzena dute gure inguruan eta baita gure osasunean, gizartearenean eta munduarenean ere. Oñatiko nekazaritza sektorearen egoera larria da eta gure elikaduraren kalitatea makaltzen doa denbora aurrera joan ahala. **Hitzordua otsailaren 1ean izango da, arratsaldeko 18:00etan kultur etxean.**



## Oñatiko Emakumeen Kontseilua urtarilaren 19an formalizatuko da

Emakumeen kontseilua, Oñatiko emakumeen parte hartze sozial eta politikoa indartzeko eta udal politikan feminismotik eragiteko asmoz jaiotako egitura da. 2018an eman ziren kontseilua eratzeko lehen urratsak, eta 2022ko ekaina bitartean talde egonkor bat aritu da lanean, kontseiluaren eragite eremua eta papera definitzen, eta Udalean eragiteko mekanismoetan sakontzen. Denera 47 bilera egin ditu hiru urte hauetan, eta ekimen ezberdinetan parte hartu du, hala nola:

- Berdintasun departamentuko urteko plangintzak eta balorazioak
- Selma Huxley jardunaldiak
- Covid-19aren krisi-mahaia
- I. Berdintasun planaren ebaluazioa eta II. Berdintasun planaren lanketa
- Hiri antolamendurako plan orokorraren lanketa prozesuaren kontrastea
- Emakume migratuen eta zaintzaileen bizi eta lan baldintzen inguruko hausnarketa eta proposamenak mahai gaineratzea
- Liburutegiko txoko feministaren sorrera
- ....

2022ko ekainean kontseilua formalizatzeko beharra ikusi zen, eta bere funtzionamendua eta eraketa arautuko duen ordenantzaren lanketa hasi zen. Urriaren 27ko osoko bilkuran onartu zen, aho batez.

Ordenantzaren arabera, administrazioaren menpeko organo gisa formalizatuko da kontseilua, baina Udalak espazio autonomo, malgu eta libre gisa aitortzen du. Elkarlanerako logikan planteatzen da, dialogorako eta elkar entzuteko espazio gisa.

Kontseiluan parte hartzea banakakoa izango da eta herriko edozein emakumek parte hartu ahal izango du bertan. Horretarako eskaera aurkeztu behar da Udalean (berdintasuna@onati.eus). Urtarrilaren 19an kontseiluaren asanblada konstitutiboa egingo da udaletxean, 17:30etan.

## Emakumeen Etxetara egindako bisitetan ikasitakoa partekatzeko saioa egingo da urtarilaren 21ean

Oñatiko Emakumion Etxea eratzeko prozesuaren baitan, azaroan bisitak egin ziren Gipuzkoako emakumeen etxe ezberdinetako esperientziak ezagutu eta galdera ezberdinen inguruko gogoetak partekatzeko asmoz: **Zer da emakumeen etxe bat? Nolakoa izan daiteke? Zein zerbitzu edo baliabide jasotzen dituzte? Zein aukera eskainiko dizkit? Nola funtziona dezake? Zer egin dute beste herri batzuetan?**

Beraien artean oso ezberdinak diren etxeak ezagutu zituzten eta, orain, bisita horietan ikusitakoa eta ikasitakoa partekatzeko saio irekia antolatu dute Udalak eta bisitetan parte hartu zuten emakumeek. **Urtarrilaren 21ean izango da, Eltziako hirugarren solairuan (11:00-13:30).** Eskuartean dituzten aukerak mahai gainean jartzea izango da helburua, Oñatiko Emakumion Etxearen proiektua definitzen joan ahal izateko.

## 9 ikastaro-tailer, Emakumeentzako Jabetze Eskolaren eskaintza berria

Udaleko Berdintasun sailak prest du Emakumeentzako Jabetze Eskolaren eskaintza berria. Datozen egunetan etxe guztietara banatuko den eskuliburuan ikus daitekeen moduan, gai ezberdinen inguruko 9 ikastaro-tailer programatu dira 2023ko lehen seihilekorako, horietako bat gizon-zezkoie zuzendua.

Ikastaro-tailer sorta berri honetan parte hartzeko izen-emate epea **urtarrilaren 23an** itxiko da. Udaleko Berdintasun sailak animatu egin nahi ditu herriko emakumeak pausua ematera eta Jabetze Eskolan parte hartzera.



# "Denontzako eskola"

*Elkar Hezi  
eta  
Hezkuntza Saila*

**23-24 ikasturtean  
2 urteko gelan matrikulatzea:**

**prezioa:**

**KUOTARIK  
GABE**

**balioa:**

**ZATOK  
EZAGU-  
TZERA**

**Euskal Hezkuntza  
Zerbitzu Publikorantz**

*#oñatiguztiak*

[idezkaritza@elkarhezi.eus](mailto:idezkaritza@elkarhezi.eus) / [www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus)

943 71 82 72  688 621 195



# Chiapaseko komunitateak ahalduntzen

» Nekazaritza, osasuna eta generoa ardatz dituzten proiektuak burutzen ari da **Elkartasuna Txiapasekin** taldea



Oñatiko Elkartasuna Txiapasekin taldeak aurrean egin dituen lanen berri eman digu.

## » TESTUINGURUA

Bizi-kostuaren igoerak baldintzatutako testuinguru batean ari gara lanean. Pandemiak eta nazioarteko testuinguruak eragindako krisiak oinarritzko produktuen garestitzea ekarri du.

Erregio-mailan eta estatu-mailan ere egoera zaila da, lurraldea bereganatu nahi duten talde kriminalen presentziagatik. Indarkeria kasuak eta liskar armatuak etengabeak dira bi talderen artean, bata Guatemala barrualdetik datorrena eta bestea eremuan presentzia mantendu duena.

*Derecho de piso* edo segurtasuna bermatzearren truke merkatariei, bizilagunei eta komunitate osoei eskatzen zaizkien diru kopuruak, eta alde bateko nahiz besteko, edota gatazkarekin loturarik ez

duten pertsonen bahiketak eguneroko ogia dira.

Lan-aukera faltaren aurrean, gazteak talde hauetan sartzen dira, eta etengabeko konfrontazio armatuaren aurrean,

familia askok euren komunitateak uzten dituzte, arrisku txikiagoko eremuen bila.

Estatuaren barnealderantz ere hain agerikoa ez den beste desplazamendu mota bat gertatzen ari da, talde hauek egiten ari diren ganadutegi eta jabetza pribatuaren erosketa edo okupazioekin. Pixkanaka lurraldea hartzen ari dira.

Komunitateek zailtasunak izan dituzte tradizioz ekoizten dituzten elikagaietatik bizibidea ateratzeko. Ongarrien prezioa %300 garestitu da, eta lurren emankortasuna agrokimikoek laboreei ematen dizkieten mantengaien menpe dago. Ondorioz, ekoizpena oso urria izan da.

## » LAN ILDOAK

*San José Yocnajib, Comitán, Trinitaria, eta Motozintla* bezalako herrietan indarkeriatik ihesi iristen diren desplazatutako familientzako asentamenduak daude, eta bertan ari gara lanean, ekintza-ildo ezberdinetan

1. CEIBA elkartearen (Komunitateen Sustapen eta Garapenerako elkarte) esperientziatik abiatuta, materiala eta agroekologian trebatzeko formazio teknikoak eskaintzen duen dokumentazio zentroa.

2. CEIBAk lorategi botanikoaren eta baratzaren mantenua.

3. Zuzeneko lana lau komunitarekin familia-baratzak martxan jartzeko. Hauek dira komunitateak:

## » DESPLAZATUTAKOEN KOMUNITATEAK

### • SAN JOSÉ YOCNAJAB

*Colibrís* kolektiboko eta duela gutxi sortu den *Semillas de Esperanza* taldeko hainbat kidek parte hartzen dute. Familiaren elikadura hobetzen duten elikagaiak eta diru laguntzak ekoiztea da helburua.

### • SAN NIKOLAS BUENAVISTA



Talde honekin maskulinitateen gaia lantzen aritu gara, eta agroekologia lantzen ere hasi gara. Nekazariz osatutako talde honek agrokimikoekin lantzen dute lurra, eta interes handia pizten du, alde batetik, produktu kimikorik gabeko ortuak ekoizteko aukerak, eta, bestetik, soberan geratzen zaizkien frutak (limoia, laranja, camotea, chile eta platanoa) saltzeko alternatibak sortzeko aukerak, usteltzen utzi gabe. Interes handia du talde honek bere baliabideak erabiliz ongarri organikoak egiten ikasteko.

• MARGARITAS TALDEA

*Las Margaritas* udalerriko taldea da hau. Familia-baratzak instalatzeko interesa du. Komunitate ezberdinen topagunea den *Unión de Ejidos de la Selva* izeneko gunean baratze bat martxan jartzen hasi gara. Talde honen zati bat maskulinitate tailerretan parte hartzen aritu da, eta familia baratzeekin lanean hasia adostu du, jende berria sartuz.

• LA ESTACIÓN TALDEA,

*La Trinitaria* udalerriko komunitatea da. *Frontera Comalapa* udalerriko desplazatu taldea, euren komunitateetako jasandako indarkeriatik ihesi joan zena. Bost familiako taldea da, eta euren bidez artikulatzen dira beste leku batzuetan desplazatutako familiak eta euren komunitateetan jarraitzen duten beste batzuk, beldurrari eta indarkeriari aurre eginez, ez dutelako lur-eskubidea galdu nahi. Talde honek baratzak jartzeko eskatu zigun, beraientzat eta bileretara etortzen den jendearentzat jatekoa izateko premia dela eta.



**Indarkeriatik ihesi, beraien komunitateak uzten dituzten familiekin lanean ari da Txiapasekin Elkartasuna taldea**

**Agroekologian trebatzeko formazioa, eta osasuna nahiz generoa gaian sentsibilizatzeko tailerrak egiten dituzte**



» NEKAZARITZA ETA OSASUNA

Lau taldetako 17 kiderekin hasi ginen lanean. Honela antolatzen ditugu tailerrak: gaiari buruz duten ezagutzatik abiatzen gara, agroekologiaren elementu teknikoak ematen ditugu, nekazaritza konbentzionalarekiko ezberdintasunei buruz hausnartzen dugu, elikagai osasuntsuak ekoizteak osasunerako duen onura azal-

duz, eta praktika kolektibo batekin ixten dugu: ongarri organikoa egiten dugu, beraiek biltzen dituzten tokiko materiale-tatik abiatuta, bertan ez dauden material minimoak sartuz.

Baratze bat prestatzeko praktika kolektiboa egiten dugu, eta aurreneko ereitea eta landaketa egiten da. *Vermikonposta* (zizare bidezko ongarria) sortzeko ontzia

prestatzen dugu, eta, ondoren, taldea bera arduratzen da gainontzeko taldekideei formazioa emateaz. Baratzeak lantzeko beharrezkoak diren tresna eta materiala eskuratu diegu, eta baita haziak ere.

Oñatiko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza eman digu proiektu hauek aurrera ateratzen laguntzeko. ■

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**ARKITEKTURA**

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 \* amaiigartua@gmail.com



Izaro  
Elorzaren  
hautagaitza  
aurkezteko  
ekitaldiko  
irudia

## Izaro Elorza izango da EH Bilduren alkategaia

Izaro Elorza, egungo alkatea, izango da EH Bilduren zerrendaburua maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Gogotsu, indartsu eta beste lau urtez daukan onena herriaren esku jartzeko prest dagoela esan zuen Elorzak berak, EH Bilduren alkategaia aurkezteko abenduaren 14an kultur etxean egindako ekitaldian. "Gobernuan dagoen talde politikoaren koloreak, haren erabaki txikiak ere, izugarritzko eragina du herritarren egunerokoan. Ausardia eta ardura handiz jokatu behar da, benetan eraldatzaileak izango diren politika publikoak abiarazteko. Eta, beti, herritarrekin batera. Lagunduz eta laguntza jasoz. Horrela eraikitzen da herri bat. Horixe da EH Bilduren eredu, eta horretan sakontzen jarraitu nahi dugu", gaineratu zuen Elorzak.

### URTARRILEKO LANSAIOAK

Oñatiko EH Bilduk etorkizuneko herri proiektua doitzeko eta indartzeko lanburuak egingo ditu urtarilean. Iazko maiatzean hasi ziren lanean, arlokako lan-taldeak eratuta. Azaroa bitartean, aurreko urteetako balantzea eta diagnostikoa egin zuten, herriko eragile zein norbanakoein bilduta. Azaroko Herri Batzarrean aurkeztu zituzten emaitzak, eta orain ekintza plana marrazteko

unea irekitzen da, martxora bitartean.

Hauze lanburuaren egutegia:

- **Urtarrilak 16:** KULTURA
- **Urtarrilak 17:** LURRALDE ANTOLAKETA I (basogintza / erreka / energia)
- **Urtarrilak 18:** POLITIKA SOZIALAK
- **Urtarrilak 19:** SOZIOEKONOMIA I (merkataritza / ostalaritza / turismoa)
- **Urtarrilak 23:** EUSKARA
- **Urtarrilak 24:** LURRALDE ANTOLAKETA II (hirigintza / hondakinak / etxebizitza / mugikortasuna / elikadura-burujabetza)
- **Urtarrilak 25:** HEZKUNTZA
- **Urtarrilak 26:** SOZIOEKONOMIA II (industria / enplegua / ekonomia eraldatzailea / lehen sektorea)
- **Urtarrilak 30:** BERDINTASUNA
- **Urtarrilak 31:** KIROLA
- **Otsailak 1:** GAZTERIA

Saio guztiak 18:30etan izango dira, Bilgunean, urtarilaren 19koa izan ezik; azken hau 20:00etan hasiko da. Herritar guztiak daude gonbidatuta lanburuaren parte hartzerako.

## Bigarren hezkuntzako eraikin berria inauguratu dute Txantxiku ikastolan



Irailaz geroztik, ikasturte hasierarekin batera, erabili badute ere, abenduaren 12an inauguratu zuten ofizialki Txantxiku ikastolan eraberritu duten Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko eraikina.

Ikastolako zuzendari Itziar Aranak azaldu zituen obren zergatiak: "Eraikina zaharkituta zegoen eta erreteila egiteko urtezia zeukan, eta, gainera, lege-eskakizunetara (larrialdietarako irteera....) egokitu zeharra zegoen. Bestalde, ikasle kopuruan izandako hazkuntzari erantzuteko espazio berri eta gehigarriak behar genituen eta, gainera, ikastolan bideratzen ari garen eraldaketa pedagogiko sakonari modu egokian erantzun ahal izateko espazio gardenak, argiak, goxoak, malguak eta irekiak behar genituen, ikas-irakaskuntzako modu berriekin bat datozen espazioak, hain zuzen ere.

Txantxiku ikastolak Konfiantzaren Pedagogiaren aldeko hautua egin zuen duela urte batzuk eta orain urrats bat haratago joan nahi izan du, EREIN izeneko proiektu berria DBHko lehen mailan inplementatuz. "Pertsona eredu bene-benetan ikas-irakaskuntzaren erdigunean kokatzen duen jardun pedagogiko berritzailea diseinatu dugu (beste ikastola batzuekin elkarlanean). Euskaldunak, barne sendotasuna dutenak, erabakitzaile ekintzaileak, eraldatzaileak eta kooperatiboak diren pertsonak hezi nahi ditugu", adierazi zuen Aranak.

# GIGAK PARTEKATUZ

## AURREZTEKO TARIFA



**FIBRA 300Mb**

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

**39,90€** /HILEAN

2º LINEA MUGIKORRA  
**GB PARTEKATUZ**  
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



BEZa barne. Dooko instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikor gehigarriekin partekatu nahi duzun. Gehienez ere 3 euroko lerro gehigarri bat eta kontratu bakoltzeko beste hiru lerro gehigarri. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta-puntuari.

**MÁSMÓVIL**

AHORRA, SIN MÁS



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udalak

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Azken antxinakoa

Agustin Goenaga Urzelai

“Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du”. Egia? Topiko ustela Elortzaren kasuan, Jerardok irudia eta hitza uztartzen maisu dugulako. Bere molde propioan landutako guztia ez du parerik, eta kazetari izan gabe berezko duen jarioarekin xarmatu gaitu urte luzetan.

Argazki oinak sortzeko erreminta ugari erabili izan ditu, hala nola galdeketei esker datuen balioa egiaztatu eta orekatu, han eta hemen haztatu, nondik norakoak aztertu, eta azkenik multzo korapilotsuari balio jakin bat ezarri. Informatzaile sare apartaz baliaturik opari ordainezina eskeini dosku Jerardok. Eta hori gutxi balitz Oñatiko euskeriari balio aparta eman, dotore, maisutasunez.

Azken antxinakoa, azken mohikanoa? Topiko ustela hau ere, arrunta, askotan erabilia. ‘**The last of the Mohicans**’ filmak sorrarazi zidan min samina ezin aipatu gabe utzi: **Unka** azken mohikano indioak ezin obe zekien korapiloz beteriko matazak askatzen, oin arrastoak irakurtzen, bide zidorrak taxuz aztertzen... hil zuten arte. **Unkaren** irudiko hartzen dut gure protagonista baina, zorionez honoko hau ez da epitafio bat, oñatiar tribua eta hizkuntza salbu dira, Jerardok ez baitu atseden hartuko ezta bere lumaren etorria eteteko asmorik agertu. Ez horixe.

Hala izan dadila.

Eta aurrerantzean, nola demontre kenduko azken orritik irakurtzen hasteko ohitura?

## Bi adibide

Koldo Zumalde Barrena

Bizirik dago gure herria. Zaila da zerrendatzea; izan ere, egutegi bete ekimen baita etenik gabe. Era guztietakoak: kultura, kirola, elkartasuna... Eta erabat ezinezkoa zaigu erdietara ere gerturatzea; aukera galduak!

**Kartelak.** Inongo leku eta hitzordurik gabe aurkitu dugu oraingoan plazera. Non-eta herriko iragarki tauletan. Itzal handiko gizon-emakumei ostutako hitzak, esaldiak. Zein baino zein mamitsuagoak, irakurri behin eta

berriz eta aspertzen ez gaituzten horietakoak. Dohainik. Bada irudimena, bada ekina! Bejondeizuela. Eta eutsi.

**Mari.** Gainezka zen abenduaren 11n San Ana aretoa ilunkarako 19:00etan. Film bat egin dute. Zeintzuek-eta herriko gazteek. Ez da sinesten erraza. Eta gintuen hunkitu. Musu truk. Ba al dago gehiago eskatzerik!? Zorionak zuei, eta segi sortzen. Zarete ausardia, zarete esperantza. Magia.

## Eskerrik asko Jerardo

Jose Antonio Amundarain

Ni bezala beste asko ere atsekabeturik geratuko zineten aizkeneko Kontzejupetikoa irakurritakoan, alegia, Jerardo Elortzak “Antxiñako Fotografixia” hileroko lanarekin ez duela jarraituko esan duenean.

Ni Goiherri aldetik etorritako bizilaguna izanik asko erakutsi eta lagundu didate Jerardoren idatziek eta argazkiak. Erakutsi dit Oñatiko hizkera eta historixia nolakoa den, nahiz eta oraindik ez dudan menderatzen, bere idatzlanak apartak izan dira herriko berbaz jabetzeko eta, bide batez, pertsonaia ezagutzeko ere fotografixien bitartez.

Maixulan horien hutsunea antzemango dugu, fotografixia bakoitzari Jerardok erantsi ohi zizkion argibideak oso aberatsak izan direlako oñatiar guztiontzak, bainan hala ere uste dut, Kontzejupetikek badituela gai interesgarriak gure arreta mantentzen jarraitzeko eta segi dezala aurrera.

Osasuna eta urte askotarako Jerardo.

## U28-an mobilizatu!

Roberto Posada, Gazte Koordinadora Sozialistako kidea

Klase borroka jadanik iraganeko kontua dela maiz entzuten den garai hauetan, agerikoa da langileon bizi baldintzak geroz eta okerragoak direla, zentzu ekonomikoan zein politikoan. Izan ere, etengabeko bizitzaren garestitzearekin batera autoritarismoaren gorakada nabarmen bat ere ematen hari da. Polizien soldaten eta gastu militarren igoera eta langileen interesen kontrako legeak horren isla garbiak



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)

dira. Joera hau, ausazko gertaera neutral bat baino, klase borrokaren erakusle nabarmena da, **enpresari handien eta agintarien erasoaldiarena**.

Krisian dagoen kapitalismoa ziklo ekonomiko berri batean sartu da, pobreak eta eskubideen ezabapenak ezaugarritzen duten ziklo batean. Gazte langileoi modu argian eragiten diguten aldaketak dira hauek, egunerokoan ikus ditzakegunak, lan baldintza prekarioak, aisialdiaz gozatzeko ezintasuna, bortizkeriaren gorakada, kriminalizazioa eta abar luze bat. Gazteok etorkizuna garela diguten horiek oso ondo dakite hala dela, eta horregatik bizi eredu txiro eta autoritarioa gazte langile belaunaldien eguneroko bilakatzen dute, etorkizunean ere hala izateko.

Miseria honen aurrean, zapalkuntza oro gaindituko dituen gizarte bat eraikitzearen beharra azpimarratzen dugu, sozialismoaren eraikuntzaren beharra. Bide horretan, Urtarrilaren 28an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzea animatzen dugu.

U28 mobilizatu!

## Oñatiko EAJren erantzuna Ander Lizarralderi

**Txema Agirre, Oñatiko EAJren Uri Buru Batzarraren izenean.**

“Zer gertatu zen Irunberrin?” idatzian, Lizarralde jaunak honakoa galdetzen zuen: “zergatik esan zuen PNV-k suizidioaren azalpena zuzena zela?” Galdera horren erantzuna hurrengoa da; premisa faltsu batetik abiatzen dela. EAJk ez zuen inoiz ontzat eman Guardia Zibilak 1990eko ekainean Irunberrin izandako gertaera ilunei buruz emandako bertsioa.

Felipe Gonzalezen Gobernuaren azalpenak entzun ondoren, EAJk bertsio ofizialaren inguruan zalantzak agertu zituen. Alderdiak ez ezik, Ardanza lehendakariak ere zalantzan jarri zuen bertsio hori, nahiz eta une horretan Alderdi Sozialistarekin koalizioan gobernatzen zuen (bere adierazpenek akusazio gogorrak eta gobernukideen arteko krisia eragin zuten). Bestalde, EBBk, ohar baten bidez, “bertsio ofizialen aurrean zuhurrak izateko arrazoi gehiegi zeudela” adierazi zuen, eta baieztapen hori justifikatzeko, gobernu sozialistek Brouard, Muguruza, Zabalza eta Pasaia Komando Autonomoetako

kideen hilketei buruz egindako bertsioak gogorarazten zituen.

Guardia Zibilaren bertsioa berretsi zuena, Irunberrin bizirik atera zen ETako kide bakarra izan zen, gero baztertu eta ukatu egin bazen ere bere kideetako bat ere hil izana. Jakina, adierazpen horiek nahasmena sortu zuten, baita Ezker Abertzalean bertan ere.

EAJk ez zuen jarrera ofizialik hartu; eta gaur egun oraindik gertakariak argitu gabe daude. Horiek dira gertaerak. Nolanahi ere, gertaera horiek tamalgarriak dira.

Galdera argituta, gogoratu behar da EAJk beti defendatu izan dituela giza eskubideak, guztiak, salbuespenik gabe. EAJk beti arbuia izan du indarkeria mota oro, edozein tokitatik etorrira ere: Estatuarena eta baita ETarena ere. Orain, duela 30 urte, eta beti baztertu ditu. Denek ezin dute gauza bera esan.

## Jotxo Larrañaga Zubizarreta

**Jerardo Elortza**

Jaixokeraz azkoitiarra izan arren, ondo asko zuzartu xakun Jotxo Oñatin, Mila bere emaztiarekin batera aspalditxo gure artian bizitzen jarri zanian. Eguneroko lanian hemendik kanpora jarduten eben, baiña hori etzan iñolako eragozpena makiñatxo bat txantxikuarrekin hartu-emunak eukituko. Era askotakuekin, gaiñera: gizakumiak nahiz emakumiak, bere edade ingurukoak edota askoz gaztiaguak, iritzi batekuak ala bestekuak izan ziran Jotxoren adiskide eta solaskide. Izan be, gure lagunari jentiarekin barriketan egittia gustaitten xakon. Oso komestante ona zan: esaten eta entzuten ekixena. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik bere hutsunia igarriko dogu.

## GAZTAIÑA ARBOLEN LANDAKETA

Azaroan gaztainondoa omendu genuen Eltzia parean jarritako monumentuaren bitartez. Pozik gaude. Baina badakigu monumentu antzua dela ez baldin badu gaztainondoaren egoera birplanteatzeko balio, ez baldin badu sustrai berriak sortzeko balio. Eta uste dugu bultzada erreala emateko garaia heldu dela Oñatin. Saiatzeko gertu gaude. Adituekin egon gara, eta bidea egiteko dagoen arren, posible da. Euren landarak erosi behar dizkiegu eta jakin nahi dugu zenbat herritar dauden gaztaiña landareak erosteko interesatuta. Horren arabera, eskari handiagoa edo txikiagoa egingo dugu. Basoak janez betetzeko bidean, gaztaiña aurrera. Interesatuak deitu edo idatzi watsap bat telefono honetara; **688 826 500**

Gure Bazterrak Kultur Elkarte



**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA** Kimu-Urtxin lora dendarentzat izan dira Gabonetako XV. erakusleho lehiaketako hiru sari nagusiak: epai-mahaiarena (500€), herritarrena (500€) eta haurrena (300€). Epai-mahaiak emandako bigarren saria (300€) **Andrea Azkoagarentzat** izan da, eta hirugarrena (200€) **Baruerentzat**.



**EGUTEGI SOLIDARIOA** Bularreko minbizia duten emakumeen **Izan Inurri** elkarteak 2023ko egutegi solidarioa atera du. Oñatiko zenbait emakumek ere parte hartu dute bertan eta **Oñatiko Txindurrixak** taldea osatu dute, elkarri laguntza eta babesa emateko. **Kuttun** eta **Maibi** dendetan eskura daiteke egutegi solidarioa.

OÑATIKO UDALEKO

## ARAZERIXAN


HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## MILA ESKER AURTEN ERE GUREKIN EGOTEAGATIK!!

Aurten ere, aurreko biak bezain zaila ez izan arren, egoera berrira egokitzea tokatu zaigu. Eta egoera berri honetan mila bizipen elkarbanatu ditugu Oñatiko haur eta gaztetxoekin. Ederra izan da berriro elkarren musuak eta irribarreak ikusi ahal izatea.

Espero dezagun datorren urte berria aurtengoa bezain oparoa izatea, eta elkarrekin beste une alai eta gogoangarri asko bizi ahal izatea!! Milesker!!!



## AGENDA

**Ludotekan:** **Urtarrilak 2**, Look aldeketa. **Urtarrilak 3**: Eraikuntza jolasa. **Gaztelekuko Topalekuan:** **Urtarrilak 3**: DBH3koen irteera Iruñara (Salting + zinera). **Urtarrilak 4**: ERASMUS+ saioa Ibarakoekin. **Gaztelekuko Kuboan:** **Urtarrilak 4**: LH 6koen Irteera Iruñako Izotz pista eta Salting-era. **Gaztelekua – Verdury Hall**, kontzertuak eta antzerkia: **Urtarrilak 13**, 20:30etan, Irazanen eskutik Patata Soziala antzerki emanaldia. **Urtarrilak 15**, 12:30etan: Rüdiger, sarrera 6€. **Urtarrilak 28**, 22:00etan, Biznaga, Perlata eta Motz. Sarrera 8€ aurrez eta 10€ takilan.



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia



**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

## IRAZOLA

**Okindegia**

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



## Bizitza zoriontsuagoaz gozatzeko sekretuak, maitasun istorio batean bildurik

» Pentsamendu positiboaren oinarriak biltzen dituen *El viaje de Samila* liburua argitaratu du Juanma Quella.

» Bost herrialdetan argitaratu da liburua eta 46 egunetan 2. edizioa ateratzea lortu du

*#TerritorioFelicidad* (Alienta, 2016) eta *En menos de 100 palabras* (Amat, 2020) liburu arrakastatsuen ondoren, lan berria plazaratu du Juanma Quella, *coach*, hizlari eta idazle oñatiarrak. *El viaje de Samila* liburu berrian maitasun istorio zoragarri bat eta psikologia positiboaren oinarriak uztartu ditu Quella, hain berea duen narratiba poetikoaz baliatuz.


### Nola definituko zenuke liburua?

Maitasun eta adiskidetasun istorio bat da, ongizatearen edo zoriontasunaren sekretuak biltzen dituen, psikologia positiboa oinarri hartuta.

### Aurreko liburuetan ez bezala, oraingoan estilo narratiboa hautatu duzu.

Bai, maiz erabiltzen dut narratiba poetikoa, prosaren bidez nekez azaldu daitezkeen kontzeptu eta, batez ere, emozioez berba egiteko aukera ematen duelako, eta nik emozioetatik idazten dut beti.

Azken batean, psikologia positiboaren inguruan urte hauetan zehar ikasitakoa partekatu nahi izan dut irakurleekin, eta istorio batean bildu nahi izan dut, irakurtzeko atseginagoa gerta dadin.



▼ Liburu denda eta plataforma digital guztietan eskura daiteke liburua. [juanmaquella.com](http://juanmaquella.com) webgunean erosiz geroz, egilearen eskaintzarekin jasoko duzue

### Nori gomendatuko zenioke liburua?

Uste dut liburu hau erabilgarria dela bere bizitzari ongizate edo zoriontasun puntu bat gehiago eman nahi dioten pertsona guztientzat. Ongizatea eta zoriontasuna eraiki egiten dira, eta edozein pertsonak lor dezake, psikologia positiboaren sekretuetako batzuk ezagututa.

### Oso harrera ona izan du liburuak, ezta?

Bai, Espainian, Mexikon, Kolonbian, Argentinan eta Txilen argitaratu da aldi berean, eta 46 egunetan 2. edizioa ateratzea lortu dugu. Ikaragarria da. Azaroa-abenduan estatu mailan (Katalunia, Andaluzia, Galizia...) eta Andorran ibili naiz liburua aurkezten, eta urtarrilean Mexikora joango naiz. *PositivArte* izeneko hitzaldiak ematen ari naiz eta oso harrera ona dute. Iaz 114 konferentzia eman nituen.

### Jendea zoriontasun faltan dago, nonbait.

Duda barik. Gizakiok eten gabe dugun behar bat da. Eta garbi utzi nahi nuke nire liburuetan planteatzen dutan guztiak oinarri zientifikoa (psikologia positiboa) daukala, eta oinarritzko bi galderei erantzuten diela: 'Zergatik ez gara nahi bezain zoriontsu? eta 'Zer egin dezakegu zoriontsuago izateko?'. ■



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

© Félix Sánchez

# HIGATUTA

Errelebo edo iraunkortasun faltaren ondorioz, herriko egitura ezberdinetan lanean dabiltzan eragileak higituta eta kezkatuta azaldu ziren boluntariorzari buruzko mahai-inguruan. Egoera aztertu eta lanean jarraitu beharra dagoela ondorioztatu zuten.




**MAHAI-INGURUA** Interes handia piztu zuen udaleko kirol batzordeak abenduaren 21ean antolatu zuen solasaldiak. Hirugarren urtez, herrian puri-purian dagoen gai bat aukeratu, eta erpin ezberdinetatik begiratzuz, egoera aztertzeko helburuarekin antolatu zen mahai-ingurua. Aurtengoa, kirol boluntariorzari zentratu zen. Azken hamarkadetan gainbehera datorren gai mamitsuak askorako eman zuen.

Aratz Losadak dinamizatutako saioan, herriko kirol talde ezberdinetako kideak elkartu zituzten: Aitor Bian (Eskubaloia), Ainara Diaz de Gereñu (Abixaran), Ainhoa Zumalde (Tenis) eta Iñaki Mugarza (Txirrindularitza).

Bakoitzak bere errealitatearen berri eman zuen eta arazoa, «gizartearen isla garbia» dela esan zuten. Kolektibotik indibidualismora doan gizarte batean bizi baikara. Hala ere, Oñatin baikorrak izateko motiboak badaudela ere gaineratu zuten. Mahai-inguru osoa entzun nahi izatera, eskaneatu azpiko QR kodea.

*«Kirol-boluntariorzari gizartearen ematen ari den aldaketaren isla da gaur egun. Geroz eta indibidualistagoak gara»*



## » MOTZEAN



### Espainiako txapelketan Aldekoa eta Madina

**IGERIKETA** Aloña Mendi igerilari taldeko Ane Madinak eta Kepa Aldekoak Sabadellen (Katalunia) jokatu diren neguko igeriketa txapelketetan parte hartu dute. Ane Madina bi probatan aritu zen; Bizkar erako 50 metrokoan (30"-ko denbora egin zuen), eta estilo bereko 100 metrokoan (1'05"). Kepa Aldekoak Bizkar erako 200 metrokoan parte hartu zuen eta 2'07"-an gelditu zuen erlojuak.

### Euskadiko txapeldunorde maratoi erdian

#### ATLETISMOA

Ainara Uribarri korrikalari oñatiarra 2. sailkatu zen abenduaren 18an Gasteizen jokatu zen maratoi erdian (Euskadiko txapelketa). Oñatiarrak 1:21:41-ean osatu zuen ibilbidea, Nerea Egia irabazlearengandik 18 segundora. Bi aste lehenago, Eivissan (Balear Irlak) jokaturako hiru eguneko trail-a irabazi zuen Uribarrik.



### Urtarrileko mendi irteera: Usurbe eta Murumendi

**MENDI IRTEERA** Aloña Mendiko mendi sailak urte berrirako antolatu duen lehen irteera Goierri aldera izango da, urtarrilaren 15ean. Besainen abiatu eta Usurbe (707 m.) eta Murumendi (867 m.) tontorrek igoko dituzte, Mandubian amaitzeko. Urteko lehen irteera izanik, bazkaria egingo dute bertan, ohiturari jarraituz. Izena emateko azken eguna, urtarrilak 12.



# Etorkizuna marraztu nahi?



•ATE IREKIAK  
otsailak 11

•MATRIKULAZIO EPEA  
otsailak 13-24

## Euskal musika klasikoa eta berria, musika bandaren eskutik

Euskal musika izango da protagonista musika bandaren denboraldiko bigarren kontzertuan. Kontzertuaren lehen zatian R. M. Azkueren doinu klasikoak, A. G. Chirlaqueren *1832* izeneko marxa ederra, eta J. Guridiren *10 Melodías Vascas* entzungo ditugu. Bigarren zatian moldaketa interesgarriak eskainiko ditu, perspektiba moderno batetik. Hasteko, M. Shelton-en *Basque Rhapsody* ondoren, Iñaki Urkizuren *Betikoskorri*; Oskorri taldearen hainbat melodia entzuteko aukera egongo da, suite eran. Eta bukatzeko, *Sagarra jo*, Kalakan taldearen obra ezaguna. Errepertorio berria, indartsua eta oso interesgarria, beste behin, musika bandak eskainiko diguna, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. **Urtarrilak 6, Zubikoa pilotalekuan, 13:00.**



Aurten Banda Gaztetik nagusien musika bandara igo diren hiru gazteak: Joane Arkauz, Eukén Mugarza eta Malen Galdos




URTARRILAK 7,  
LARUNBATA,  
SANTA ANA  
ANTZOKIAN, (18:00)  
SARRERA: 5€

## IKUSTEZINAK

Broadway-ko musikaz osatutako ipuin musikatua

Ganbara Kantu Eskolakoek prestatu duten proposamen berezia, haur txikientzako ipuin musikatua. 40 minutu inguruko iraupena du eta haur txikiek kontzertu batez gozatzeko aukera paregabea izango da. Miss Muffet eta bere haurrek IKUSTEZINAK diren animaliak ezagutuko dituzte istorioan zehar: BITSy armiarma, xaguxarrak, zizareak, sugea... Baina ez da beldurtzeko ipuin bat, guztiz kontrakoa. Animalia hauek gure bizitzan hain garrantzitsuak zergatik diren ikasiko dugu. Txontxongiloak ere erabiliko dituzte intsektu ezberdinak irudikatzen. Familia osoarentzako proposamen bikaina.



URTARRILAK 8,  
IGANDEA,  
BIDAURRETA  
ONASTEGIAN (19:00)  
SARRERA: 5€

## ILLUMINATIONS

Hots Abesbatza eta Aequus Ensemble orkestraren eskutik

Urteroko ohiturari jarraituz, Gabonetarako proposamen berria dakarkigu Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen Hots abesbatzak. Gabon kantak eta argiaren inguruko abestiak eskainiko dituzte. Hortik izenburua. Aurtengo emanaldia, gainera, benetan berezia izango da, musika sinfonikoa izango bita. Ganbara Taldearen baitan sortu berri sen *Aequus Ensemble* orkestrarekin batera ariko dira Hots-eko kideak, eta Amaia Zipitria piano-jolearen laguntza ere izango dute. Gainera, Eva Ugaldek taldearentzat idatzitako *Elementuen Kantak* (Ura, Sua, Aire eta Lurra) abestuko dituzte, baina orkestrarekin. Estreinaldi mundiala!

### CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**  
Oñati

## Inauterietarako entseguak urtarilaren 10ean hasiko dira

Oñatiko Inauteriko lantaldea hasita dago aurtengo inauteri jaia izango dena prestatzen, eta jakinarazi digutenez urtarilaren 10ean hasiko dira entseguak, Eltzian. Ordutik aurrera asteartero (20:00) eta larunbatero (12:00) egingo dira entseguak, Eltzian bertan. Iaz, Covid-a zela eta, online bidez egin zen izen-ematea, baina aurten entseguetan bertan egingo da izen-ematea. Animatu!



## Oñatiko eliza, komentu, ermita eta santutxuen historia laburra

*Oñatiko eliza, komentu, ermita eta gurutzeen historia labur bat* liburua argitaratu du Artixa kultur elkarteak. Oñatin historian zehar izan diren eraikin erlijiosoen historia jaso dute, beste argitalpen batzuetako informazioa laburbilduz, eta argazki ugariz hornituta.

Gaztelaraz eta euskaraz dago liburua. Jose Fernandezek egin du informazioa jaso eta antolatze lana, argazki gehienak ere bereak dira, baina Artixa taldeko kideen laguntza ere izan du, bereziki Javier Arriaran, Xabier Ugarte eta Jerardo Elortzarena.

Oñatin egun zutik dauden eraikin erlijiosoez gain, garai batean egon ziren eta dokumentatuta dauden beste hainbat ermitari buruzko informazioa ere jaso dute liburuan, hala nola: Araozko Santa Ana, Andra Mari eta San Martin ermitak, Garagaltzako Santa Cruz eta San Pelayo, Berezaoko San Roman, Santa Cruz eta San Jorge, Olabarrietako San Cristobal, edo Urrexolako San Martin eta Santa Coloma, batzuk aipatzearen. Bidaurretako komentuaren barruan dagoen Aingeruen Andre Maria izeneko kapera txiki eta bereziari buruzko informazioa, eta Rodrigo Mercado Zuazola apezpikuaren sorta pontifikalari buruzkoa ere badakar liburuak, besteak beste.

Etorbizunera begira jarrita, ondarearen kontserbazioa helburu duten bi proposamen ere egiten dira liburuaren amaieran: parrokiako klaustroan museo proiektua garatzeko azterlana egitea, batetik, eta auzoetako ermiten titulartasuna auzoetara itzultzea.

Artixa taldeak udalaren dirulaguntza jaso du liburua argitaratzeko, eta Txokolateixan nahiz turismo bulegoan eskura daiteke liburua 20 eurotan.

## Ibon Martin Oñatira etorriko da bere nobela berria aurkeztera

URTARRILAREN 13AN, ZINE ARETOAN, 19:00

» Sandailin gertatutako hilketa baten ingurukoak da idazle donostiarraren lan berria



Udal liburutegiak gonbidatuta, Ibon Martin (Donostia, 1976) idazlea Oñatira etorriko da *El ladrón de rostros* (Plaza&Janés) bere nobela berria aurkeztera. Urtarrilaren 11n aurkeztuko dute liburua Donostian, eta handik bi egunera, urtarilaren 13an, kultur etxeko zine aretoan izango dugu nobela beltzean eta suspentsean espezializatu den idazle arrakastatsua.

Izan ere, Oñatin eta, zehazki, Sandailin (Araotz) gertatutako hilketa baten ingurukoak kontatzen ditu Martinek nobela berrian. "Sandailin, harkaitzean landutako ermita xumea, antzinako ugalkortasun errito bat egiten ari zela eraildako emakume baten gorputz mutilatua agertu da. Gorputzenborra ireki eta hustu diote, eta eskuak sabelaren albo bietan ipini. Eszenak zehaztasun makabroz erreproduzitzen ditu Oteizak Arantzazun zizelkatu zituen apostoluen irudiak". Horrela hasten da Ane Cestero inspektoreak ikertu eta argitu beharko duen hilketa baten inguruko thriller-a.

Bidaien inguruko liburuak idazten hasi zuen bere ibilbidea Ibon Martinek, baina nobela beltzari esker lortu du benetako oihartzuna, bai estatu mailan eta baita nazioartean ere.

## Akordeoi jaialdian sarituak

Jose de Azpiazu musika eskolako Irati Galdos, Irati Jausoro eta Uxue Otxoak Arrasateko XXXIV. akordeoi jaialdian parte hartu zuten abenduaren 3an. Askok disfrutatzeaz gain, pozik itzuli ziren urrezko bi domina eta zilarrezko bat jasota, baita beraiei irakasleak ere





Imanol Ugarte (baxua). Xabi Pascual Pasku (ahotsa), Joseba Azkarate (bateria), Jabi Bujanda Txebi (gitarra) eta Xabi Elortza Txirli-k (gitarra) osatzen dute Motz taldea. Argazkian, Arrasateko gaztetxean emandako kontzertuan.

# Zuzenekoaren bila

**Motz** taldeak **Biznaga** eta **Perlata** taldeekin batera joko du Gaztelekuan urtarrilaren 28an

Ez dute aparteko presiorik nahi. Kontzertu normal bat izatea nahi dute, gustura egotea eta disfrutatzea, beti egiten duten moduan. Ez daukate ezer hitzartuta inorekin, baina Gaztelekuan jo behar dutenez, bertako talde teknikoa eta baliabideak kontuan hartuta, aprobeztatu egin nahi dute kontzertua grabatzeko eta, ondo ateratzen bada, diskoa ateratzeko.

Pandemia garaian sortutako taldea da **Motz**, eta bi urteko ibilbidearen ostean beraien lehen diskoa grabatzeko asmoa dute. "Taldea berria gara oraindik, baina gero eta seguruago sentitzen gara, kanta sortatxo bat ere landu dugu, gustura gabiltza, eta, bai, Gaztelekuko kontzertua grabatu egingo dugu, baina emaitza entzun ostean erabakiko dugu argitaratzea merezi duen ala ez", argitu digute **Motz** taldekoek.

Aurrez hainbat taldetan (*Golpe de Estado*, *Sospechosos*, *CC267*, *Drakes*, *Ixilik* eta *Larru Beltzak*) ibilitako bost musikarik osatzen dute **Motz**: **Txebi** (baxua), **Imanol** (gitarra), **Txirli** (gitarra), **Joseba** (bateria) eta **Pasku** (ahotsa).



Motz taldekoak Murgialdaira bisitan

Dozena bat kanta sortu dituzte dagoneko eta, nolabait definitzearen, rock melodikoa egiten dutela esan daiteke. "Gure bateriak daukan lesioak baldintzatzen du gure musika; ezin ditugu erritmo azkarrak eraman, eta garrantzia ematen diogu melodiari. Eta, egia esan, gustora eta eroso sentitzen gara horrela".

Sortze prozesua ere berezia da **Motz** taldearentzat. "Abesti baten ideia eta egitura daukagunean, gutxi gora behera, Josebak bateria bat ateratzen dio ordenagailuz, erritmo bat, eta erritmo horrekin ados gaudenean, Josebak kendu egiten

dizkio elementu denak bateriari, bonboa izan ezik, hankekin ezin duena jo, eta bonboa *sampler* bidez ateratzen da".

Musikalki ez ezik, logistikoki ere erronka bat izaten omen da kontzertu bakoitza. "Eskenatokira igotzea ez da bost minutuko kontua izaten guretako, eta toki bakoitzera moldatu eta soluzio ezberdinak aurkitu behar izaten ditugu. Egia esan, ikaste prozesu bat izaten ari da guztiontzat, eta gustora gaude. Lehen oharkabeen pasatzen ziren gauza askori erreparatu behar izaten diegu orain".

Euskaraz abesten du **Motz** taldeak, eta letrak ere asko zaindu eta lantzen ditu. "Egunerokotasuneko gaiak, kritika soziala eta barne mundu horri buruzko letrak dira, hausnarketarako bidea ematen dutenak".

Urtarrilaren 28ko kontzertuan **Biznaga** (Madril) eta **Perlata** (Arraste) taldeak izango dituzte oholtza kide. Biak ala biak ibilbide luzeko taldeak dira, eta madrildarren kasuan beraien disko berria aurkeztera datoz. Sarrerak (aurrez 8€, bertan 10€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean.



**HH-LH**

**Otsailak 03**

**17:00-19:00**

Bisita gidatuak  
Elkarrizketa pertsonalak

**BH**

**Otsailak 10**

**17:00-19:00**

Bisita gidatuak

Ordutegia: 08:00-18:00 • Tel.: 943 78 12 04 • [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus)



# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta  
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## IKUSKIZUNAK

URTARRILAK 7 / 18:00

### 'IKUSTEZINAK' MUSIKALA

Haur eta familientzako ikuskizuna, Ganbara Kantu Eskolak antolatuta. Sarrera, 5€. [Santa Ana antzokian](#)

## KONTZERTUAK

URTARRILAK 6 / 13:00

### MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Musika bandaren denboraldiko bigarren kontzertua, 'Euskaraldia' izenburupean. Dohainik. [Zubikoa pilotalekuan](#)

URTARRILAK 8 / 19:00

### 'ILLUMINATIONS' KONTZERTUA

Hots abesbatza eta Aequus Ensemble orkestraren eskutik. Sarrera: 5€. [Bidaurreta monastegian](#)

URTARRILAK 15 / 12:30

### RÜDIGER

Willis Drummond taldeko bateria jole Felix Buff-en proiektua da Rüdiger, eta brit-pop, folk, psikodelia eta indie doinuak nahasten ditu. Matinee kontzertua. Sarrera, 6€. [Gaztelekuan](#)

URTARRILAK 27 / 22:00

### VIAFARA + NIHL

Usurbil-Zarautz aldeko rock taldea eta Debagoieneko pop-funk taldeen kontzertua Sarrera, 5€ (ikasle eta langabeak 3€). [Antixena Gaztetxean](#)

URTARRILAK 28 / 22:00

### BIZNAGA + PERLATA + MOTZ

Punk-rock musika egiten duten Biznaga (Madril), Perlata (Arrasate) eta Motz (Oñati) taldeen kontzertua. Sarrera, aurrez 8€ / bertan 10€. [Gaztelekuan](#)

## JAIALDIA

URTARRILAK 20 / 20:00

### 'U28 BILBORA!' RAP EMANALDIA ETA KONTZERTUA

GKS-k antolatuta. Rap emanaldia 20:00etan hasiko da, herriko hainbat gazteren eskutik. Ondoren, 22:00etatik aurrera, Doce-C (Oñati-Tolosa) rapero bikotea eta Txandal Vandals (Iruña) drill eta trap taldearen kontzertua. Sarrera, 5€ (ikasle eta langabetuak 3€). [Antixena Gaztetxean](#)

## ERREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOA

**Bertsolariak:** Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

**Gai-jartzailea:** Txinparta Bertso Eskola.

Sarrera, 10€, Txokolateixan eta [www.oñati.eus](#) atarian

[Urtarrilak 5, Zubikoa pilotalekuan, 22:30](#)



### ANTZERKIA

## Munduari itzulia 80 egunetan

Glu Glu konpainiaren eskutik, familia giroan ikusteko antzezlanaz gozatu ahal izango dugu. Elkarbizitzaren alde egiten duen abentura istorio bat da, Julio Vernerren liburuan oinarritutako bertsio librea. Glu Glu-ren lanetan ohikoa den moduan, umorea eta musika dira nagusi. Sarrera: 4€

[Urtarrilak 22, Santa Ana, 17:00](#)



### ANTZERKIA

## Hondamendia

Artedrama eta Axut! taldeen eskutik, Harkaitz Canok idatzi eta Ximun Fuchsek zuzendutako Hondamendia antzezlanak ikusteko aukera izango dugu Santa Ana antzokian. Diziplina artekoa da ikuskizuna; dantza, musika, soinua eta irudia uztartzen ditu. 2020ko otsailean du abiapuntua: zabortegei baten kolapsoak bi langile desagerrarazi ditu azpian. Ardura eta erantzukizuna maskaratzeko moztorroak era handik dabilta. (10€).

[Urtarrilak 29, Santa Ana, 19:00](#)

## HITZALDI-TERTULIAK

URTARRILAK 17 / 19:00

### 'KOLONIALISMOA ETA EKOLOGIA (HIPOTESI BATZUK)'

Hizlaria: Jagoba Hidalgo, historialaria. STH-k antolatuta. [Antixena gaztetxean](#).

URTARRILAK 18 / 10:00

### 'ONTZIAK'

Hizlaria: Joseba Sarrionandia. Oñatiko Esperientzia Gelaren baitan. [Santa Ana antzokian](#)

URTARRILAK 19 / 19:00

### 'ZERGATIK MOBILIZATU U28an?'

Urtarrilaren 28an Bilbon eta Iruñean egingo diren manifestazioaren zergatiaz eta garrantziaz hitz egingo dute GKS taldekoek. [Antixena gaztetxean](#)

## IPUIN KONTAKETA

### Pello Añorga

#### Ostegun kontalariak

ekimenaren baitan, 4-5 urteko haurren-tzako ipuin kontaketa saioa egongo da **urtarrilaren 26an**, udal liburutegian. Ordu erdiko bi saio egongo dira (17:30 eta 18:15), euskal ipuingintzan maisua den Pello Añorgaren eskutik.



## TAILERRA

### Hazkunde pertsonalerako tailerra

#### Zertarako balio du?

- Nolakoa zaren jakiteko, kontzientzia hartzeko eta modu horretan nagikeria gainditzeko.
- Ongizate esparrutik irtetzeko.
- Oraina bizitzeko.
- Zure bizitza kudeatzen jakiteko eta norberak bere burua ezagutu eta onartzeko.

**Hasiera data:** urtarrilak 21  
**Ordutegia:** 9:00-13:00, hileko larunbat batean Oñatiko Yoga Eskola (OYE) Bidebarrieta, 28. Prezioa: 60€ (OYEko ikasleak 50€)  
 Maitek eta Lurdesek zuzenduta, hazkunde pertsonaleko orientazailak eta yoga irakasleak.  
 Kontaktua: 658719086 / lourdescid1@hotmail.com



### Hileko gomendioa

Ohiko biografia moldeetatik ihesi, Laboaren kantuen izpiritua, aldartea eta umorea hartu dituzte egileek bidelagun, errealitatearen errekako korronte geza irudimenaren itsasoko urekin nahasten den puntuan murgiltzeko gonbidapena eginez.

## ZINEA



## ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusia:** Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).  
**Astelehena** (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)



#### DATOZEN FILMAK:

- Avatar: El sentido del Agua
- Todos lo hacen
- El peor vecino del mundo
- El gato con botas: el último deseo
- Yoko oporretan



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
 Urtarrilak 1, 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.  
 Otsailak 1 eta 2.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
 Urtarrilak 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.  
 Otsailak 3, 4 eta 5.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
 Urtarrilak 6, 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29. Otsailak 6 eta 7.

### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
 Urtarrilak 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22, 30 eta 31. Otsailak 8 eta 9.



## MERKATU TXIKIA

**GARAJE** itxia alokatzen da. 16m<sup>2</sup>, argia, San Lorentzo auzoan, goiko aldean. Deitu: 652 705 766

**ETXEBIZITZA** salgai Oñatiko erdigunean (82m<sup>2</sup>). Bista ederrak eta oso argitsua. Deitu: 655 720 404

**GARAJEA** Garaje bat alokatzen da Ugarkaldeko 13-17an. 645719884

**LOKALA** Bulego edo zerbitzu jarduerarako lokala/espazioa (17m<sup>2</sup>) alokatzen Euskadi Etorbideko 7an. Deitu: 645 719 884

## ODOL ATERALDIA

**URTARRILAK 13 / 16:30-20:30**  
 enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu:



**Mikel Egaña Urrutia**  
 Aseguruak

Eskatu aurrekontua komprometzu gabe:

- |            |             |               |
|------------|-------------|---------------|
| ☛ Heriotza | ☛ Istripuak | ☛ Etxebizitza |
| ☛ Autoak   | ☛ Ontziak   | ☛ Aurrezkia   |
| ☛ Bizitza  | ☛ Osasuna   | ☛ Laborantza  |

Helbidea: Motxon 5, behea  
 638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS  
**URBIA**  
 MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; KONTU KONTARI

## BEGIXA BEGI TRUK



Gudari talde bat frentian

Gaurko istorixia ezta atzo goizekoa, ez horixe, baiña ezta hain aspaldikua be! Azkenengo gerrateko pasadizo bat da, zeinian bi oñatiar gazteren ibillerak aittatu eta bixetako baten etxian pasautakuak geure herrixari zela eragin otsan kontauko dogun.

Sarrittan entzun dogun legez, Espaiñiako gerriak urten ebenian, gure herrixan, beste leku askotan letxe, bi bando sortu ziran; alde batetik, errepublikanuak (milizianuak) edo gorrixak izenekuak, abertzale edo nazionalistekin batera altxamenduaren kontra egin eueiñak; eta beste aldetik, berriz, karlistak, falangistak, erreketiak ... altxamenduarekin bat egin eueiñak. Bizkarra emunda bizi izandako bi banduen barri izango dozue aurretik be, ezta?

Ba, gure protagonistak Oñatiko bi gazte ziran, bata araoztarra eta bestia aurrekomenditarra, nazionalakin batera, hau da, gerra-irabazliakin, soldadu egozenak Huescako frentian. Egoera hartan egunak aguro barik, luze eta nekez faten xaten, eta asko akordaitten ziran euren herri eta etxiakin. Batek esaten ei otsan bestiari, *'gure etxian orain sagardaua egitten ibilliko dittuk'*, eta bestiak, berriz: *'billots denporia laster hasiko dok eta, honezkero, gurian billotsen bat jaixorik izango dok'*. Baiña frentian egozen eta euren burua ez euen bape be seguru ikusten, betik billurrak aidian, *'hemen garbittuko gaittuk'* sarri botaten ei eben aurrekomendittarrak. Ametsak be baekuain, jakiña! Bateko, gerria akabotakuan lehengo bizimodura bueltau ahal izango zirala; besteko, herrixan geratutako nobixakin ezkonduko zirala, eta holaxe. Aurrekomendittarrak esaten ei eben: *'Hemetik bizirik urteten badot, Zumarragan taxisa jarriko xuat'*. Baiña haren amets guztiak pikutara fan ziran, tiro batek jo eta bertan garbittu euen eta.

Hori pasau zanian, araoztarrak, pena haundixagaz, lagun horren gauza danak jaso —kartak, erlojua, medaillia, identifikaziñoko plakia eta geratu xakon beste hondar pittñak— eta horreik danak hartuta, etxera etorrittakuan, haren baserrixan entregauko zittuala erabagi eben. Hala, hango frentia itxi eta herrira bueltaitteko aukeria izan ebenian, lehenengo lana hildako lagunaren etxera fan eta haren gauza danak entregaittia izan zan. Halaxe, ba, nobixiari kartak entregau eta gurasuai erlojua, medaillia eta plakia emun osten.



Armada erregularreko soldaduak desfilaitten

Baiña gerra danetan modu askotako gauzak pasaitten dira, eta, pertsonak be, egoeria zelakua, jokaeria halakua izaten daue; eta hildako mutillaren etxian be holako zerbait pasau zan. Gerra hasieran etxe horretan *'gorrixak'* egon zirala-eta, beste bandokuak, nazionalak esan gura dogu, etorri eta nagusitu ziranian, etxeko zer guztiak errekisau eta ziharo hustu ondoren, etxe ona eta opatsua zana txori-etxe itzi euen.

Orduan, etxe hartako beste seme batek hori ikusi ebenian, bere etxia zer izan zan eta zela itzi euen, desesperaziñuak jota eta amorruren amorruez dana bertan behera jare eta falangian sartzeia erabagi eben, hau da, eskumaldeko muturreko erakundian. Eta, gorrotuak hartuta, hala fan ei zan gerrara bere etxian egon ziran *'gorri danak akabaitteko asmuagaz'*. Gerran ebillela, koronel bateri kontau otsan zer pasau zan bere etxian, gorrixak egon zirala-eta, nazionalak etxe dana hustu egin eueilla, eta abar. Koronel horren begikua zan, itxuria, gure mutilla, eta harek hori entzun eta denpora gutxira hara nun presentau zan Oñatin eta bando hau egin:

***'Bost egunian, Aurrekomendixan hustu zan baserrixa, berriz be bihar dan moduan hornittu ezian, erremintta, labrantzaako tresnerixa, ganadu, janari eta abarrekin, jentia afusilaitten hasiko gara'.***

Mehatxu latzaren ondoren, hango hanka jotia! Di-dau batian batu ziran eskatutako guztiak: zidarrezko txanpon, burdi, ara, alper, iri, asto, behi, baba, arto eta garixok; eta, diruok eta hornigaixok baserri horretara itzulitta, etxe hori berriz be lehengo izanera bueltau zan. Kendu osteiñak, baiña, oraindiok ondo akordaitten ei dira zer kendu ostein eta zela bizi izan bihar izan ziran gerraoste luzian.

Horra hor, ba, usarixo zaharreko *'odolostiak ordaiñetan'*, edo, *'begixa begi truk'*; zoritxarrez, sarri askotan ikusten dan jokabidia!

#### **Berbategixa:**

Ara: hogeita lau hortzeko nekazaritza-tresna zapala

Alperra: zokorrak hausteko ebalten zan nekazaritza-tresnia



# ZURICH

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

**ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK**  
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...





**DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA**

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

**695 78 91 04 - 943 04 47 77**

# Zorionak eta Urte Berri On 2023, Eskola Kiroleko familia guztiarentzat!

*Doinua: Haizea dator iparraldetik*

*Zer da Eskola kirola eta  
jendearen perspektiba  
litzake saski, eskubaloia,  
futbola zein sokatira.  
Baina balore gehiago ditu,  
garrantzitsua hori da:  
Neska mutilak irtetzen dira  
pozik kantxaren erdira,  
begi bat kantxan beste begia  
gurasoei begira,  
haurren distirak parekatzen du  
hemen diruan distira.  
Hobe genuke kirol guztiak  
horrelakoak balira.*

*-Urko Arregi-*

by @muxotepotolobat

*¡Feliz año 2023 para toda  
la familia del Deporte Escolar!*

